

II. MODULUA

DISRUPZIOARI AURREA HARTZEA

AURKIBIDEA: Disrupzioari aurrea hartzea.

[LEHEN SAIOA: Zer da disrupzioa?](#)

- Saioaren aurkezpena: helburuak eta jarduerak.
- "Eskua". Aurkezpen jarduera.
- "Disrupzioa: sarrera". Testua irakurri eta taldeetan aztertzea.
- "Disrupzioa. Definizioa eta faktoreak". Power pointeko diapositiben aurkezpena.
- "Aterpe nuklearra". Talde-dinamika, erabakiak adostasunez hartzean dauden zailtasunak bizitzeko.
- "Jokabide disruptiboak. Galdera-sorta". Ikasgeletan jokabiderik disruptiboenak identifikatzeko adostasunerako prozesua.

[BIGARREN SAIOA: Disrupzioaren osagaiak eta faktoreak.](#)

- Saioaren aurkezpena: helburuak eta jarduerak.
- "Zuri... edo beltz": konfiantza sustatzeko eta giro lasaia sortzeko talde-dinamika.
- "Diziplina gabezia eta familiaren eta eskolaren arteko harremanak". Valentziako Generalidadeko Hezkuntza Kontseilaritzaren bizikidetzarako prestakuntza bideoa ikusi eta aztertzea.
(http://www.edu.gva.es/eva/es/conv_publicaciones.htm)
- "Disrupzioa eta haren zergatiak". Testua irakurri eta aztertzea.
- "Irainaren aurreko erreakzioa". Talde-dinamika.
- "Disrupzioa 5. kurtsoko ikasgelan". Kasu bat irakurri eta lantzea.

[HIRUGARREN SAIOA: Disrupzioari aurrea hartzea. Ikastetxearen antolaketa.](#)

- Saioaren aurkezpena: helburuak eta jarduerak.

- "Aurkezpenak amarruarekin": elkar ezagutzeko eta konfiantza sustatzeko jarduera.
- "Ikastetxearen antolaketak disrupzioari aurrea hartzen dio". Testua irakurri eta aztertzea. Ikastetxe bateko ebaluazio gida bat prestatzea.
- "Ametsezko eskola": adostasunerako eta antzekotasunez eta aldeez jabetzeko jarduera.
- "Hausnarketarako jarduera". Ikastetxearen beraren disrupzioari aurrea hartzeko ekintzak aztertzea.

LAUGARREN SAIOA: Disrupzioari aurrea hartzea. Ikasgelaren kudeaketa.

- Saioaren aurkezpena: helburuak eta jarduerak.
- "Trumoiaren seme-alabak". Testua irakurri eta iruzkinak egitea.
- "Disrupzioa. Prebentzioa". Power pointeko diapositiben aurkezpena.
- "Angeluzuzenak": lankidetzaz eta arauari errespetua izatea esperimendatzeko jarduera.
- "Teknikariek aholkatzen dute": araudiaren gaineko taldeko jarduera. Taldean egoteko moduz hausnar egitea. Urruntzeko beharra balioestea soluzio desberdinak esploratzeko.

BOSGARREN SAIOA: Irakaslea, ikasgelaren kudeatzaile.

- Saioaren aurkezpena: helburuak eta jarduerak.
- "Irudikatu zer naizen, irudikatu zer zaren...". Ezagutza eta komunikazioa garatzeko dinamika.
- "Irakasle hasiberria". Testua irakurri eta iruzkinak egitea.
- "Irakaslerik onena". Talde-dinamika, irakasle onek dituzten ezaugarrien eta nolakotasunen gainean hausnartzeko.
- "Ikasgela kontrolatzeko estrategiak". Testua irakurri eta aztertzea. Ikasgela kudeatzeko praktika onen dekalogoia prestatzea.

- "Irakasleentzako hausnarketarako galdera-sorta". Norberak hausnartzeko jarduera.
- "Irakasle gaituak eta prestatuak". Power pointeko diapositiben aurkezpena.

[SEIGARREN SAIOA: Araudiarekin bueltaka.](#)

- Saioaren aurkezpena: helburuak eta jarduerak.
- "Legerik gabeko eskola?" Testua irakurri eta iruzkinak egitea.
- "Ikasgelako araudia nola abiatu". Testua irakurri eta aztertzea. Prozedura ikastetxeko ikastaldeein egokitzea.
- "Arauekiko sentiberatasuna". Ikasleak sentsibilizatzeko jarduerak prestatzea.
- "Arauek eta ondorioak". Arauek betetzen ez direnean, ondorioak prestatzea.

[ZAZPIGARREN SAIOA: Jokabide disruptiboen gaineko esku-hartzearen diseinua \(I\).](#)

- Saioaren aurkezpena: helburuak eta jarduerak.
- "Esaldiak baino zerbait gehiago...": ezagutza eta elkarrizketarako jarduera.
- "Esku-hartzea disruptzioaren aurreran". Power pointeko diapositiben aurkezpena.
- "Kasu bat aztertzea talde koadrikulatuen bidez". Kasuak aztertzea talde koadrikulatuen teknikaren bidez.
- "Jokabideak ikasgelan behatzea". Jokabideen erregistroa ikasgeletan hasia.

[ZORTZIGARREN SAIOA: Jokabide disruptiboen gaineko esku-hartzearen diseinua \(II\).](#)

- Saioaren aurkezpena: helburuak eta jarduerak.
- "Jokabiderik ohikoenak". Behatutako jokabideetatik aukeratu lan egiteko maizenik gertatutakoa.
- "Esku-hartze plana". Plan bat diseinatzea jokabiderik disruptibo ohikoenaren gainean esku hartzeko.

Irakasleak bizikidetzan trebatzeko materialak.

- "Egindakoaz gogoratzen dudana": egindako jarduerak ebaluatzeko eta balioesteko jarduera.

LEHEN SAIOA: Zer da disrupzioa?	dis01a00
<p>HELBURUAK:</p> <ul style="list-style-type: none">• Parte-hartzaile guztiak ezagutzea.• Taldeka parte hartzeko dinamikak garatzea.• Disrupzioaren kontzeptura hurbiltzea.• Adostasunerako estrategiak garatzea. <p>JARDUERAK:</p> <ul style="list-style-type: none">• "Eskua". Aurkezpen jarduera, taldekide guztiek euren buruei buruz zerbait esan dezaten.• "Disrupzioa: sarrera". Testua irakurri eta taldeetan aztertzea.• "Disrupzioa. Definizioa eta faktoreak". Power pointeko diapositiben aurkezpena.• "Aterpe nuklearra". Talde-dinamika, erabakiak adostasunez hartzean gertatzen diren zailtasunak bizitzeko.• "Jokabide disruptiboak. Galdera-sorta". Adostasunerako prozesu antolatu baten ondoren, irakasleek beren ikasgeletan disruptiboak diren jokabideak identifikatuko dituzte.	

Eskua

dis01a01

HELBURUA: Lantaldeko parte-hartzaile guztiak aurkeztea eta interesak eta itxaropenak azaltzea.

PROZEDURA: Orri zuri batean bakoitzak bere eskuaren silueta marraztuko du. Jarraian, bakoitzak hatz bakoitzean hitz edo esaldi laburra idatziko du hurrengo aginduen arabera:

- hatz nagusia: bere izena edo taldean zer izenekin nahi duen ezagutzea
- hatz erakuslea: interes edo zaletasun azpimarragarriren bat
- hatz luzea: taldean lan egiteko norberaren nolakotasun positibo bat
- hatz nagia: zer espero duen talde honetatik eta egin behar den lanetik
- hatz txikia: zer ez litzaiokeen gustatuko taldean gertatzea

Aldaerak:

Aginduak alda daitezke gutxiago edo gehiago ezagutzen den taldearen arabera, bestelako datuak ekarri nahi badira edo parte-hartzaileen elkarrekiko ezagutzan sakondu nahi bada (prestakuntza esparru honetan, landu nahi diren gaiak, izan daitezkeen zailtasunak...)

Disrupzioa: sarrera	dis01a02
<p>Irakurri ondoko testu hau. Komentatu 5-6 pertsonako taldeetan eta bukaeran proposatzen diren galderak gida moduan hartu. Talde guztiak batera jartzea.</p> <p style="text-align: center;">Testua</p> <p style="text-align: center;">"Disrupzioa: sarrera"</p> <p style="text-align: center;">C. Gallegotik eta P. Venturatik egokitua (2008)</p> <p>"Azken urte hauetan arazo jakin baten gaineko kezka sortu da ikastetxeetan eta prestakuntza plan eta argitalpenetan. Disrupzioaz ari gara. Termino hori ingeleseko "disruption"-etik dator eta desantolaketa, etetea, hondatzea esan nahi du (<i>Collins Dictionary</i>, 1993).</p> <p>Berriki egindako ikerlan batzuen arabera, arazo horixe da bereziki bigarren hezkuntzako eta lehen hezkuntzako azken kurtsoetako irakasleak eta ikastetxeetako zuzendaritzak gehien kezkatzen dituen.</p> <p>Irakasle askorendako "gertaera xeheen" arazoa besterik ez da. Gertaera horiek diziplina gabeziatzen edo indarkeriatzen har ez badaitezke ere, irakaslan galarazten dute eta egunak joan egunak etorri irakaslearen aginpidea eta autoestimua murrizten dute. Etete txiki horiek itxurazko normaltasun baten azpian irakaskuntzaren eta ikaskuntzaren prozesuan aurrera egiten galarazten dute. Esate baterako, honelako jokabideak: garaiz kanpo egindako galderak: "bolaluma bat eska dezaket?", "komunera joan naiteke?"; material gabezia: "ez dut libururik", "ez dut zuzena ekarri"; ikasleen artean joka hasi, agindu gabeko gauzak egin (disimuluz), jarlekutik altxatu edo mugitu, txantxak egin...</p> <p>Arartekoaren aginduz egindako ikerketa nazional baten barnean (2000), "Eskolako indarkeriaren gaineko txosten" zabala idatzi zen. Txosten horretan azpimarratzen da ikasgelako disrupzioa dela eskolan gatazkak izateko arrazoi nagusia. "Klasea galarazten duten ikasleak" sortutako gatazka mota hau da ikastetxeetan maizen gertatzeaz gainera kezkarik handiena sortzen duena.</p> <p>2006. urtean, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak Bizikidetzaren Urteko Biltzarra antolatu zuen izenburu honekin: "Disrupzioa ikasgeletan: arazoak eta konponbideak". Biltzar horren ondorioetan aditzera eman zen hezkuntza erkidegoa kezkaturik zegoela ikastetxeetan oso hedaturik dagoen gertakari batekin. Gertakari horren ondorioz, hezkuntza prozesua eten egiten da eta horrek ondorio negatiboak sortzen ditu ikaskuntzan eta bizikidetzan.</p>	

Asko dira azken urte hauetan gai honen gaineko artikulak eta dokumentuak argitaratu dituzten ikertzaileak. Horien artean, Isabel Fernándezek (2007) literatura espezializatuaren zati handi batean erabiltzen den definizioa biltzen du. Honelaxe definitzen du disrupzioa: "Jokabide desegokien multzoa da, diziplina gabeziatzat hartzen dena, osagai akademiko nabarmena duena, ikaskuntza atzeratzen duena, ikasgelan giro desatseginak sortzen dituena eta, orobat, pertsonen arteko harreman txarrak sustatzen dituena, dela irakasleen eta ikasleen artean, dela ikasleen artean eta, batzuetan, dela irakasleen artean ere".

Bestalde, beste egile batzuek –eta horien artean Pedro Uruñuelak (2006)– bereizketa egiten dute disrupzioaren eta diziplina gabeziaren artean. Diziplina gabeziak berekin dakar arauak ez betetzea. Diziplinarik gabeko jokabideak ez ditu diziplina arauak errespetatzen, zein diren ez dakizkielako edo haiekin ez dagoelako ados. Arauen kontrakotzat hartzen badira ere, jokabide disruptiboak ñabardura hori baino gehiago dira. Disrupzioaren ezaugarria da irakaskuntzaren eta ikaskuntzaren prozesua haustea duela helburu eta, prozesu horri lotutako portaera denez gero, hezkuntzako lanaren kontrakoa da.

Arazo hau sortzen duten faktoreak aztertuz gero, egile gehienek azalpen multifaktoriala ematen dute. Maiz, ikerketa batean baino gehiagotan, adierazten da irakasle gehienek jokabide disruptiboa haien kontrolpean ez dauden zergatiei eragozten dietela, hau da, uste dute arazo hau pizten duten faktoreak ez dagozkiola irakasleen esku-hartzeari (ikasleen egoera pertsonalak eta sozio-familiarrak, testuinguru soziokulturala, hezkuntza sistema...). Hala ere, disrupzioaren gaineko ikerketek esaten dute honako aldagai hauek eragin handia dutela gai honetan: ikastetxearen egitura eta antolaketa; ikasgelako eta taldearen giroa; curriculumeko osagaiak eta, horien artean, bereziki erabilitako metodologiak; irakasteko estiloa eta irakaslearen trebetasunak; eta irakasleen zein ikasleen jarrerak. Halaber, faktore garrantzitsutzat jotzen da ikasle disruptiboaren profila, oro har, eskolak proposaturiko ikaskuntzen aurrean desmotibatua, autokontrolerako zailtasunak dituena eta harremanetarako trebetasun gutxikoa dena. HZMaren 2006ko biltzarrean azpimarratu zen disrupzioaren eta eskola porrotaren arteko lotura dagoela eta, ondorioz, proposatu zen disrupzioa esparruetatik beretik abiatu lantzea: curriculumak; eskolaren antolaketa; pertsonen arteko elkarrekintza; eta irakasteko estiloa.

Aldiz, beste zenbait egilek adierazten dute arazoa ez dela soilik mugatu behar ikasgelara, irakaslearen eta ikastaldearen arteko gunera, alegia, osagai soziala ere kontuan hartu behar dela eskolaren gaineko itxaropenei eta hartan konfiantza galtzeari dagokionez, eta, orobat, irakasleekiko eta irakaslanarekiko larderia eta errespetu gabezia ere hor dagoela. Bestalde, ikastetxeak ere aldatu dira ikasleei (hezkuntza nahitaezkoa da 16 urteak arte 1990eko Legetik hona) eta irakasleen eskariei dagokienez. Irakaskuntza ere aldatu da: igaro gara irakasgaian eta ezagutzaren transmisioan oinarrituriko irakaskuntza batetik ikaslea oinarri hartzen duen hezkuntza barne-hartzaile eta aniztasuna kontuan izan behar duen batera. Hori oro oso gogorra egiten zaie irakasleei (irakasle horiek hasieran jasotzen duten prestakuntzaren zatirik handiena zer irakatsi da eta ez horrenbeste nola). Marchesiren arabera (2004), bateratzea zaila den bi

helbururen artean egiten du dantza eskolak: gizartea metatzen joan den ezagutza eta balio kultural eta zientifikoaren transmisioa segurtatzea eta ikasleen garapena zaintzea, kontuan hartuz haien beharrak, ongizatea eta portaera moralaren erregulazioa. Ez da erraza gertatzen oreka lortzea honako hauen artean: ahalegina, guztiendako arauak, akreditazio zorrotza, ikasleen interesa, haien afektu- eta gizarte-garapena, ikaskuntza esanguratsua eta banakoen arteko aldeak.

Esandakoaren arabera, irakasleak ustez izan baditu abilezia eta trebetasunak, hasierako prestakuntza hartan eman ez zaizkionak. Bestalde, taldeetan lan egiteko formazio gabezia ere adierazten da eta faktore negatibotzat hartzen da banakotasunetan oinarrituriko hezkuntza – irakasleak ikasgelan bakarrik egiten du lan eta batzuen eta besteen arteko proposamenak ez daude oso loturik-. Irakasle taldeen arteko koherentziaren eta sendotasunaren bilaketa (indartsuagoa izanen litzateke familiekiko koordinaziora hedatuko balitz) ezinbesteko faktoretzat hartzen da hezkuntza arretan eta ikaskuntza errazten duen giroa sortzean.

HZMren aipatutako biltzar horretan (2006) onartzen zen irakasleen hasierako eta etengabeko prestakuntza izan daitekeela eta izan behar duela disrupzioari aurrea hartzeko eta bizikidetzan hobetzeko oinarrizko osagaietako bat.

Disrupzioa ikastetxean edo ikasgela jakin batean aztertu behar denean, irakasleek ados jarri behar dute portaera disruptiboak zein diren erabakitzerakoan. Jokabide bat disruptiboa den edo ez erabakitzerakoan, subjektibotasun-maila kontuan hartu behar da: irakasle batendako onargarria eta aipatzea merezi ez duen zerbait beste batendako oso jokabide desegokia izateaz gainera nahitaez esku hartu beharrezkoa izanen da.

1. Zuen ikastetxean, "eskola ematea galarazten duten ikasleen arazoa" garrantzitsua da? Esku-hartze, bilera asko... eragiten ditu?
2. Testuan disrupzioa bi modutan definitu da. Ados zaudete Pedro Uruñuelak egin duen ñabardura desberdinarekin?
3. Zuen ustez, disrupzioari dagokionez, zein dira taldean erabakigarrienak izan daitezkeen faktoreak?
4. Zuen ustez, ikasgelako edo ikastetxeko arazoa da? Argudioztatu zuen iritziak.
5. Zuen ustez, irakasleen prestakuntzan zer alderdi dira beharrezkoak jokabide disruptiboari aurrea hartzeko?

Aterpe nuklearra

dis01a04

HELBURUA: Talde batean adostasuna lortzea zaila dela bereganatzea, bereziki jokoan balio eta erabaki moralak daudenean.

PROZEDURA: 6 pertsonako taldeak eginen dira eta "Aterpe nuklearra" izeneko testua banatuko zaie. Halaber, 10 minutuan adostasunera iritsi behar dutela esan behar zaie. Epe hori igaro ondoren, talde bakoitzak eledun bat izendatuko du eta hark erabakitakoaren berri emanen dio talde handiari. Talde guztiek euren erabakiak adierazi ondoren, eztabaidarako tarte izanen da (10 minutu gehienez) adostasun orokorrera iristeko asmoz. Azkenik, jarduera aztertuko da.

"Laster eraso nuklear batek mehatxatuko du zuen hiria. Jendea erradiazioaren ondorioetatik babesteko prestaturiko aterpea dago. Aterpe horretan soilik 6 lagun sartzen dira. Sartu nahi dutenak, aldiz, 12 dira, eta ez dute beste inon aterpetzerik. Zuek zarete arduradunak eta zuek erabaki behar duzu nor sartuko den aterpean. Aterpetu nahi duten 12 lagunak honako hauek dira:

- 40 urteko biolin-jotzailea, paperik gabeko etorkina
- 27 urteko abokatua
- abokatuaren emaztea, 26 urtekoa, Osasun Mentaleko erietxetik atera berria eta bere senarrarekin batera egon nahi duena, aterpearen barnean edo kanpoan
- 70 urteko apaiz bat, auzo marjinal bateko parrokiaren ardura duena
- 35 urteko prostituta bat
- 19 urteko neska unibertsitario bat, kastitate-botoa duena
- 28 urteko zientzialari argia; aldean pistola badarama soilik sartuko dena aterpean
- adimen ezgaitasuna duen 14 urteko neska
- 47 urteko kazetari homosexuala
- 32 urteko emakume ile-apaintzailea, atake epileptikoak jasaten dituena
- 39 urteko enpresa-gizona, birritan tratatu txarrak emateagatik akusatua
- 21 urteko zerbitzaria; bere ama eta bere arreba berak egindako lanetik bizi dira

Erabakia 10 minutuan hartu behar duzue; ez da inolaz ere denbora gehiago erabili behar.

Jokabide disruptiboak Galdera-sorta	dis01a05
<p>Irakasle bakoitzari ondoko galdera-sorta eman behar zaio –galdera-sorta horretan portaera disruptiboen zerrenda ageri da–. Helburua da irakasle bakoitzak ikustea bere gelan horietako zein gertatzen den, zeinek molestatzen duen gehien edo zeinek sortzen dituen eragozpenik handienak ikasgelako lanean.</p> <p>Irakasle bakoitzak aztertu eta balioetsiko ditu. Jarraian, irakasleak binaka jarriko dira eta biek aipatutako portaeren artean eragozpen gehien sortzen dituzten 4 adostuko dituzte. Jarraian, bi bikote elkartuko dira eta bikote bakoitzak ekarritako portaerak berraztertuko dituzte eta 5 garrantzitsuenak adostuko dituzte. Gero, lau bi multzo elkartuko dira eta eztabaida eta adostasunerako prozesu bera egingen dute gehienez ere 6 portaera adostera heltzeko. Hala egingen da parte-hartzaile guztiak bi taldetan banaturik gelditu arte. Batera jarriko dira eta ikastetxean gertatzen diren 5-7 jokabide bilduko dira, hain zuzen ere irakasle guztiek adostasunez oso gogaikarritzat hartu dituztenak.</p>	

<p><u>DISRUPZIOA IKASGELAN</u></p> <p>IRAKASLEENTZAKO GALDERA-SORTA</p> <p>Adierazi gurutze batez zein portaera ematen den zure klaseetan eta ematen direnetan balioetsi zenbateraino tartekatzen diren gelako lanean.</p>				
IKASLEEN PORTAERAK	Nire klasean gertatzen dira	Gelako lanean tartekatzen dira		
		Asko	Nahikoa/ ohikotasunez	Gutxi/Deus ez
ARAUET DAGOKIENEZ:				
Klasean berandu sartzea.				
Komunera maiz ateratzea eskatzea.				

Materialak edo instalazioak (mahaietan edo hormetan pintatu, gauzak bota...) desordenatu edo hondatzea.				
Liburuak, koadernoak, karpetak... pintatzea.				
Janzkera desegokia eramatea.				
Txikleak, pipak, zukuak... jatea/edatea.				
Musika walkman/Mp3 batean entzutea.				
Sakelako telefonoarekin mezuak bidaltzea/telefonoa erabiltzea.				
Jokoan aritzea (adibidez, kartetan).				
Objektuekin edo gorputz-atalekin hotsak (eztul txikiak, txistuak...) egitea.				
Objektu txikiak erabili edo haiekin jolasean ibiltzea.				
"Pailazoarena" egitea.				
Klasean sartzean edo ateratzean ordenarik ez izatea.				
Tokitik altxatzea.				
ATAZARI DAGOKIONEZ:				
Beharrezkoa den materiala (liburuak,				

koadernoak, bolalumak...) ez ekartzea.				
Klasean lanak egiteari uko egitea.				
Lanari buruzko komentario negatiboak egitea.				
Interesik eza, pasibotasuna eta nagikeria izatea.				
Etxeko lanak ez ekartzea.				
Une horretan klasean egiten ari dena ez den beste zerbaitetan aritzea (beste irakasgai bati dagokion lanean, irakurtzen...).				
Lana modu axolagabea egitea.				
Lana motel egitea denbora galtzeko.				
Lanak ezarritako eperako ez bukatzea.				
Taldean lan egiten denean gora hitz egin edo oihu egitea.				
IRAKASLEAREKIKO ERRESPETUARI DAGOKIONEZ:				
Azalpenak ematen ari naizenean ahapeka edo ahots apalez hitz egitea				
Azalpenak ematen ari naizenean etetea gaiari ez dagozkion kontuekin.				
Nire aginduak ez				

betetzea.				
Gauzak behar baino lehenago gordetzea.				
Iseka moduan hitz egitea.				
Gezurra esatea.				
Desafioka aritzea.				
IKASKIDEEKIKO HARREMANARI DAGOKIONEZ:				
Ikaskideak etetea hitz egiten ari direnean.				
Ikaskide baten materialak eta lanak hondatzea.				
Talde lanetan ikaskideekin elkarlanean ez aritzea.				
Errua besteei botatzea.				
Alde batera uztea.				
Beste bati iseka egitea, keinuak edo isekak egitea, izengoitiak jartzea...				
Beste norbaitekin eztabaidan aritzea gainerakoak lanean ari diren bitartean.				
Gauzak kentzea.				
Iraintzea.				
Kokotekoak ematea.				
Borrokatzea.				

BIGARREN SAIOA: Disrupzioaren osagaiak eta faktoreak.	dis02a00
<p>HELBURUAK:</p> <ul style="list-style-type: none">• Pertsona guztien parte-hartzea sustatu eta taldean giro lasaia sortzea.• Parte-hartzeko eta barneratzeko dinamikak garatzea.• Jokabide disruptiboak sortzen eta baldintzatzen dituzten faktoreak eta osagaiak aztertzea. <p>JARDUERAK</p> <ul style="list-style-type: none">• "Zuri... edo beltz": parte-hartzaileen artean konfiantza sustatzeko eta giro lasaia sortzeko talde-dinamika.• "Diziplina gabezia, eta familiaren eta eskolaren arteko harremanak". Valentziako Generalidadeko Hezkuntza Kontseilaritzaren bizikidetzarako prestakuntza bidea ikusi eta aztertzea. (http://www.edu.gva.es/eva/es/conv_publicaciones.htm)• "Disrupzioa eta haren zergatiak". Testua irakurri eta taldeetan aztertzea.• "Irainaren aurreko erreakzioa". Talde-dinamika, hitz iraingarri edo mingarriek pertsonengan sortzen duten eragina eta ondorioak gutxitzeko.• "Disrupzioa 5. kurtsoko ikasgelan". Kasu bat irakurri eta lantzea.	

Zuri... edo beltz

dis02a01

HELBURUA: Taldekide guztien arteko ezagutza eta konfiantza sustatzea.

PROZEDURA: Parte-hartzaile guztiei eskatuko zaie gelaren erdian ilara bakarra egin dezatela. Animatzailea beraien aurrean jarriko da eta aukera batzuk proposatuko dizkie. Bakoitzak eskaini zaizkion bi aukeratako bat hartu beharko du nahitaez eta, animatzailearen agindutara, eskuinean edo ezkerrean jarri beharko du.

Adibideak:

- Europara bidaia egin nahi dutenak nire eskuinean;
Ameriketara joatea nahiago dutenak, nire ezkerrean
- futbola edo tenisa
- zinema edo poteoa
- hondartza edo mendia
- musika klasikoa edo boxeoa
- herri batean edo hiri batean bititza
- igande arratsaldean etxean bakarrik gelditzea edo futbolera joatea
- bidaia egitea neguan edo udan
- kafea edo infusioa
- mendian, perretxikoak biltzea edo argazkiak egitea
- jatea ostatu batean edo Bulli-n
-

<p style="text-align: center;">BIDEOA aztertzea: "Indisciplina y relaciones familia/escuela" (Diziplina gabezia, eta familiaren eta eskolaren arteko harremanak).</p>	<p style="text-align: center;">dis02a02</p>
<p>Bideoa behin ikusi ondoren, parte-hartzaile bakoitzari gidoi bat emanen zaio eta gidoi horretan eszena bakoitzean kontuan hartu beharreko zenbait puntu. Gidoi hau kontuan harturik, berriz ikusiko da bideoa.</p>	
<p>1. Ikasgelako eszena.</p> <ul style="list-style-type: none">• Ahozko eraso• Zuzeneko erasotzailea eta ikusleak: ezaugarriak• Irakaslearen estiloa• Diziplina (gabezia)• Zehapenak <p>2. Irakasle gela.</p> <ul style="list-style-type: none">• Irakaslearen egoera balioestea• Elkar errespetatu beharra• Egoera emozionala• Autokonpasioa, antsietatea eta autoestimu txikia: segurtasunik eza eta etsipena• Laneko isolamendua• Enpatia eta ikuspegi soziala hartzea• Ikastetxearen jarrera <p>3. Ikasgela.</p> <ul style="list-style-type: none">• Larderia / Nagusikeria• Emozioen autokontrola• Ahozko komunikazioa eta ahozkoa ez den komunikazioa• Komunikazio-estilo desegokiak: pasiboa eta oldarkorra• Komunikazio-estilo aukerako eta eraginkorra: asertibitatea <p>4. Ikastetxearen kanpoaldea, irteerako atea.</p> <ul style="list-style-type: none">• Gurasoen eta semearen edo alabaren arteko portaera-ildoak berriz ematea• Portaera desegokia modelatu eta indartzea <p>5. Ikastetxeko korridorea.</p> <ul style="list-style-type: none">• Gurasoen eta semearen edo alabaren arteko portaera-ildoak berriz ematea• Familiaren eta eskolaren arteko harremana• Soluzioak batera bilatzea <p>Bideoa: "Indisciplina y relaciones familia/escuela" [Diziplinarik eza eta familiaren eta eskolaren arteko harremanak] Valentziako Generalidadeko Hezkuntzako Kontseilaritza.</p>	

**BIDEOA aztertzea: "Diziplina gabezia, eta familiaren eta eskolaren arteko harremanak".
Taldean erantzuteko galderak**

Bideoa bigarrenez ikusi ondoren, 4-5 pertsonako taldeak egin eta egoera aztertu behar da zenbait galderari erantzunez.

1. Zer ikusi dugu?
2. Halako egoerak, ¿maiz gertatzen dira? Gure ikastetxean ere gertatzen dira?
3. Zergatik gertatzen dira halako jokabideak? Jatorri argia dute? Zer faktorek eragiten dute? (faktore pertsonalak, eskolakoak, familiakoak, sozialak...)
4. Luis Pabloren aitaren planteamenduek nola eragiten dute Luis Pabloren jokabideetan?
5. Zein da irakaslearen jarrera? Zuzen dabil esaten duenean?: "ez dut deus ere hitz egiteko zurekin, atera kanpora". Bestela jokatu beharko zukeen?
6. Zein da irakaslearen lankidearen jarrera? Zer beste aukera zuen?
7. Zer egin daiteke halako jokabideak berriro gerta ez daitezen? (irakasleak, ikastetxea, zuzendaritzak, familiak...)

Disrupzioa eta haren zergatiak	dis02a03
<p>Testua irakurri ondoren 5-6 pertsonako taldeak egin behar dira testuaren edukia komentatzeko. Talde bakoitzak esan eta arrazoitu behar du, bere ustez, zein diren jokabide disruptiboekin zerikusirik handiena duten faktoreak. Bateratzea talde handian.</p>	

Testua

Disrupzioa eta haren zergatiak

Azken urteotan badirudi eskolako diziplina gabeziarekin zerikusia duten alderdiak direla irakaskuntzaren inguruko munduaren kezka handienetako bat.

Irakasleek kemen eta ahalegin handia behar dute errespetuzko giro ordenatu bat lortzeko eta irakatsi eta ikasi ahal izateko. Ikasleak hobeki eta gehiago motibatuzko estrategiak bilatzeko lanak alde batera utzi dira eta ikasgelan gatazkak geldiarazteko estrategiak bilatzeari ekin zaio.

Zenbait ikerlanen arabera, gatazkak (diziplina espedienteak, ikasgelatik egozteak, behin eta berriz izandako jokabide disruptiboak, irakasleekin tentsioa izatea...) sortzen dituzten ikasleak gutxi gorabehera %20 dira.

Gero eta gehiago da estresak jotako irakasleak. Erreta bukatzen duten irakasleak, sofritzen duten irakasleak, hain zuzen ere ikasgelan sartzeko beldurrez josita dauden irakasleak.

Ikasgelan bizirik irautearekin konformatu beharra dago?

Bada soluziorik? Nondik hasi?

Komeni da ikasgelak dena kontrolpen dagoen gune bare-barea izatea?

Gaiztaturik dago ikasleek irakasleari modu otzanean obeditzen zioten eredu hura?

Gaur egungo ezaugarri soziokulturalek aukerarik ematen dute gaur egungo irakaskuntza sistemarekin jarraitzeko?

Zergatik ez daude pozik ikasle batzuk, zergatik bizi dute urrun eskolaren errealitatea, zergatik matxinatzen dira edo errefusatzen dituzte eskolako arauak?

Zer erlazio dago motibazio gabeziaren eta eskola porrotaren, eta eskolako egoera disruptibo eta bortitzen artean?

Irakasleen iritziz, honako hauek dira ikastetxeetako gatazken zergatiak:

- Irakasle batzuen ustez, ikasleak bizi diren **inguruneak** sortzen ditu gatazkak (eremu andegatuak, egituratu gabeko familiak, alkohola eta bestelako drogak, egoera txarrean dauden etxebizitzak...).
- Beste irakasle batzuek **ikasleen gaitasunen** arazoa aipatzen dute (talde heterogeneoak, irakurketarako edo arazoimenerako gaitasunik eza, gabeziak, autokontrolerako ezgaitasuna, gainerakoek baino gaitasun-maila handiagoko ikasleak aspertu egiten dira...).
- Hirugarren talde bateko irakasleek uste dute gaur egungo gizartearen balioak krisiak jota daudela (errespetu gabezia, ardurarik eza, irmotasunik edo pertseberentziarik eza, deus ordainetan jaso gabe gauzak musu-truk ez egitea...).
- Azkenik, beste irakasle batzuen iritziz ikasleen nortasunean dago gakoa (ikasleak basatiak, desmotibatuak, txistezaleak, hipersentikorrak... dira).

Beste azterlan batzuetan arazoa dimentsio batetik baino gehiagotik lantzen da:

- eskola testuinguruaren ondoriozko faktoreak: kudeaketa zaileko ikastetxeak, askotariko ikasleak dituztelako (jatorria, gaitasunak, interesak...) eta askotariko irakasleak (adina, irakaskuntzako ezagutzak, ideologiak...)
- faktore pedagogikoak: hezkuntzako prestakuntza, hezkuntza rola ezartzeko zailtasuna, kudeaketak agintzen du (50 minutuko saioa, patioa zaintzea, ...(e)ko bilera)
- kultura faktoreak: telebista, internet, bideojokoak, gizarte sareak...
- faktore sozio-ekonomikoak: immigrazioa, zailtasunak dituzten auzoak, kontsumismoa, banakotasuna
- taldekako eta interakziorako faktoreak

Eskolako gatazkak nahitaez hainbat esparrutako (administrazioko, ikastetxeak, familiak, komunikabideak...) esku-hartze globalak eskatzen ditu. Alderdi bati soilik erreparatzen badiogu, esku-hartzeak partzialak izanen dira eta arrakasta izateko bermea, txikia.

Badirudi adostasun handia dagoela esaterakoan, gaur egun, ikastetxeek ezagutza zientifiko, teknologiko, kultural eta sozialak transmititzeaz gainera, topagune eta sozializazio-gune ere behar dutela izan. Horregatik, modu baketsuan elkarrekin bizitzeko gai diren pertsonak trebatzen dituen hezkuntza integrala eskatzen da.

Ikuspuntu horretatik abiatuz, ematen du ondoko alderdi hauek arazo honi aurre egiteko garrantzitsuak direla:

- hezkuntza emozionala (ezagutza, autokontrola eta automotibazioa)
- gizarte hezkuntza, trebetasun sozialen garapena eta moralaren hezkuntza landuko dituenak.
- ikasgelaren kudeaketa demokratikoa
- lankidetzaren ikaskuntza
- gatazkak modu baketsuan konpontzea (elkarrizketa, negoziazioa, bitartekaritza...)

Bibliografia:

Hernández Prados, M^a A. Los conflictos en el aula. www.psicopedagogia.com/articulos/?articulo=398
Serrat, A. (koord.) (2002). Resolución de conflictos. Una perspectiva globalizadora. Cisspraxis arg.

Irainaren aurreko erreakzioa

dis02a04

HELBURUA: Egoera bat bizi, zeinetan esaldi iraingarriek edo mingarriek balioa galtzen duten eta erantzuna modu ezezkoan ematera behartzen ez gaituzten.

PROZEDURA: Gutxienez parte-hartzaile adina txartel prestatu behar da. Txartel bakoitzean iritzi negatiboa, kritika ezereztailea, eraso oldarkorra, irain mingarria... duen esaldi bat idatziko da. Txartelak lurrean utziko dira, mezua agerian. Parte-hartzaileek, ibilian, isilik irakurriko dituzte. Denak irakurri ondoren, bakoitzak gogaikarrien gertatzen zaiona edo bere errealitatetik hurbilen dagoena aukeratuko du. Mezua hautaturik, ibilian segituko dute esaldia esanez, animatzailearen jarraibideen arabera. Animatzaileak aginduak emanen ditu: ahots apalez, apalago, xuxurlatuz, silabatan zatikatuz, azkarrago, are azkarrago, ahots sendoz, oso ahots sendoz, oihuka, berriro ahapeka..., haur txiki batek bezala, saltzaile batek bezala, tren geltoki bateko bozgorailu batek bezala, jeneral batek bezala, mozkor batek bezala..., bukatuz norberaren ahotsarekin, oso-osoa apal, eta azkenean isilduz. Ariketa egin ondoren, denak eseri eta ariketak norberarengan izan duen eraginaz hitz eginen da, ikusiko da hitzek nola galdu duten esanahi erasotzailea.

Txarteletan jar daitezkeen esaldiak:

- "oso zabarra zara, ez dakizu gauzei lehentasuna ematen"
- "gauzak nahiko gaizki irten zaizkizu"
- "kosta ahala kosta zure iritzia inposatu nahi duzu, oso menderatzailea zara"
- "ez zara zure konpromisoei eusteko gai"
- "ez zenuke horrenbeste haserretu beharko, sutan jartzen zara"
- "egia esan, ergela dirudizu"
- "ez dituzu gertaerak onartzen eta halaxe zabilta"
- "zergatik zara hain berekoia?"
- "taldean oztopo bat besterik ez zara"
- "zein ezkorra zaren! beti gauza ezkorrak ikusten dituzu"
- "barregarri gelditu zara jende guztiaren aurrean"
- "lerdo batek bakarrik izanen luke ideia hori"
- "taldeko lanari ihes egiten diozu"
- "lekuz kanpo dauden iruzkin horiekin dena izorratu duzu"
- "zer dela-eta egiten dituzu gauzak beti oker?"
-

Disrupzioa 5. kurtsoko ikasgelan Aztertu beharreko kasua	dis02a05
<p>DESKRIBAPENA:</p> <p><i>Ikasleak</i> 23 ikasleko taldea da. Urteak joan urteak etorri irakasleak asko aldatu dira eta urtetik urtera ere ikasle berriak etorri dira.</p> <p>Hitz egin dugu irakasleekin ikastaldeko disrupzioaz eta zenbait irakasleri klasea ohikotasunez ematea galarazten dieten portaera oldakorrez. Irakasleek esan digute taldea askotarikoa dela eta ikasleen artean 4 direla batez ere zailtasunik handienak ematen dituztenak.</p> <p><i>Kevin:</i> iazko ikasturtean iritsi zen ikastetxera. Bere amarekin eta honen bikotekidearekin batera bizi da. Argia eta ahalmen handikoa da. Orientatzailearen arabera, gai da helduak "erabiltzen", etxean ez du araurik, gelan telebista eta play-a dauzka, sakelako telefonoa ere badu (badirudi aitak dirua ematen diola) eta ez du ordutegirik. Badirudi luze egoten dela kalean, baita gaeuz ere, eta mutil helduagoekin duela harremana.</p> <p><i>Tasio:</i> lehen urteak bere herrialdean bizi izan zen amaren aldeko amona zaintzen, bere amak hemen lan egiten zuen bitartean. Urte batzuen buruan amak semea hona ekarri zuen. Ordurako amak bazuen beste bikotekide bat eta harreman horretatik sortu zen neska bat (gaur egun Haur Hezkuntza ikasten ari da). Badirudi Tasiorekin asko kostatu zitzaioela familian bizitzeari eta ikastetxeari egokitzea. Amak dio etxean berarekin oso zakar aritzen dela. Osasun Mentalera joan ziren, baina utzi zioten joateari.</p> <p><i>Jon:</i> bere amarekin, arrebaorde gazteago batekin eta amaren gaur egungo bikotekidearekin batera bizi da. Frustrazioen aurrean kasketak izaten dituen mutikoa da. Kasketa horietako batean buruarekin zoruaren kontra jo izan du. Osasun Mentalera joan zen, baina utzi zion joateari.</p> <p><i>José Carlos:</i> aurten iritsi da taldera eta iaz gainditutzat ematen zuten gatazkak berri- berri dituzte. Ama oso gaztea da eta esaten du ezin duela kontrolatu. Semea etxetik goizean ateratzen da eta ez da gaua arte itzultzen. Amak dio "ez dakiela non bilatu".</p> <p><i>Irakasleak</i> Iazko ikasturtetik hasita ikastaldearen tutorea <i>Mikel</i> da. <i>Mikel</i> zuzeneko irakaslanera itzuli zen kanpoan zenbait urtez egon ondoren. Familia kontuak direla-eta, ordutegi murriztua du eta, ondorioz, ikasgelan beste pertsona bat aritzen da. Ikasturte honetan bada irakasle bitarteko bat, Ines. Inesek matematika ematen du (4 saio, hezkuntza jarduera antolatua (Erlijiora ez doazen ikasleekin), eta irakurketa eta plastikako saioak.</p> <p>Tutorearen arabera, ikastalde zaila da eta haien mailetan eta interesetan desberdintasun handiak daude. Bada neska talde bat; neska oso langileak dira eta ahalmen handikoak eta maiz kezaka ari dira mutilek eten egiten dietelako. Neska horien guraso batzuk kezkatuak daude denbora galerekin. Mutilen artean dago <i>Kevin</i> eta <i>Tasior</i> jarraitzen dion taldea –arazo handienak sortzen dituztenak dira– eta, gero, bada beste talde bat, zalapartak albotik ikusten geratzen direnak. Era berean, badira hezkuntza premia bereziak dituzten bi ikasle; taldean isolatu samar daude. Tutoreak dio bere klaseetan badirela egunak klaseak eteten dituztenak edo gatazketan sartzeko saiakerak egiten dituztenak, baina aski dela begiratu bat, haiei hurbilduz, edo, batzuetan, oihu lehor bat; horrekin bakarrik bukatzen dira portaera desagokiak. Uste du <i>Inesekin</i> aldatzen zailak egiten diren dinamika oso ezkorretan sartu direla.</p> <p><i>Miriamek</i> ingelesa irakasten du eta kezu da ikasle batzuek ez dutelako lan egiten eta</p>	

haien maila oso baxua delako. Iazko ikasturtean *Kevin*ek arazo franko eman zizkion ez baitzuen agerian lanik egin nahi. Ikasturte honetako egun batzuetan ez du lan askorik egiten, baina bakean utziz gero, ez du atentzioa ematen "frogaturik baitauka okerrago dela liskar bati ekitea".

Gorputz Hezkuntzan ez da arazo larririk gertatzen. Irakasleak dio ikasle horiek oso mugituak direla eta futbola dela gehien gustatzen zaiena. Klasearen bukaeran, tartetxo batean, futbolearen aritzeko baldintza bakarra bete behar dute: portaera ona izan eta agintzen dizkien jarduerak egin.

Musikako irakasleak dio berarekin portaera ona edo txarra izaten dutela, egunen arabera. Uste du *Kevin*ek eguna nolako, hala eramaten dituela berekin gainerakoak: tontakeriatan eta "pailazokeriatan" hasten dira. Ezikusienak egiten eta klasea ohikotasunez ematen ahalegintzen da. Noizbait zigorren bat ere jarri izan die. Balio diona, bereziki *Kevin*ekin eta *Tasio*ekin, bakarka hitz egitea eta beren "barru on" hori azaleratzea da. Maiz, pribatuan, saritxoren bat (goxokiak, futbolisten argazkiak...) eman izan die.

Bestalde, ikusirik irakaslearen zailtasunak, Zuzendaritzak (zuzendariak eta ikasketaburuak) parte hartu izan dute: zuzenean ikasgelan, ikasle zehatzekin (*Kevin*, *José Carlos*), familiekin, tutoreari iradokiz irakasleari lagun ziezaion... Emaizak ez dira oso onak izan.

*Ines*ek dio hasieratik tutoreak esan ziola talde zaila egokitu zitzaioela. Berehala hasi ziren arazoak eta Eguberriak aldera ikastaldeak gainezka egin zion. Behin eta berriz klasea eten egiten zuten. borragomak hautsi eta puskak batak besteari bota, jarlekutik altxatu, hitz egin, hotsak egin, elkarren artean joka ibili... Maiz ez zioten azalpenak ematen uzten. Klasean U bikoitz bat egiten dute eta elkarren artean solasean errazago aritzen dira. Irakasleak behin baino gehiagotan egin zion kexa zuzendariari eta azkenean klasera igo eta errieta egin zien. Zuzendariak errieta egin ondoren, jokabidea asko hobetu zen. Era berean, orientatzailea ere lanean hasi zen: elkarrizketak egin zituen familiekin eta haien seme-alabekin (aldaketarako konpromisoa lortzen saiatu da). Irakasleak uste du arazoak gorago aipatutako 4 ikasle horietan pilatzen direla (horietako 3 etorkinak dira eta laugarrena aurten etorritakoa). Denen egoera sozio-familiarra zaila da eta ohiturik daude nahi dutena egiten eta euren familietan ez dago mugarik. Kasuetako batean, *Jonek* uste du (Jon ez da etorkina) jatorrian zerbait psikikoa dagoela ikusia baitu patioko zoruaren kontra buruarekin jotzen. Aurten ikastetxera iritsi den *Jose Carlosek* ez dut deus ere egiten klaseetan. Liburuak eta materialak baditu ere, ez du lanik egiten. (Orientatzaileak hasierako ebaluazioko probak egin dizkio haren maila zein den jakiteko). Tutorearen iritziz, haur hau eginahalak egiten ari da gainerakoekin arreta bereganatzeko; onar dezatela nahi du. Gainerakoetan *Jose Carlosek*iko anibalentzia harremanak ikusten ditu (*Kevin* eta *Tasio*): klasean mesprezatzen dute eta arratsaldean elkarrekin ateratzeko esaten diote. Irakaslearen aburuz, klaseko burua *Tasio* da. Batzuetan kontra egiten dio irakasleak esandakoari, hitz egiten du etenak eginez, entzuleak behar ditu, bere burua nabarmendu beharra dauka. Bestalde, afektua behar duela uste du tutoreak. Irakasleak izan zuen ikasle honekin gorabehera bat, gertatu direnen artean larrienetakoa: irakasleak ezetz esan eta hark mahaia eta aulkia bota egin zituen. Irakasleak orduan eutsi zion eta hark orduan esan zuen irakasleak jo egin zuela. Egoera zail hori gorabehera, irakaslearekiko harremanak ez du okerrera egin.

Irakasleak jokabide disruptiboari aurrea hartzeko askotariko estrategiak erabiltzen ditu: isilik gelditu eta azalpenak emateari utzi; fitxa batean apuntatu eta apuntatu dituela esan; zuzendariari deituko diola mehatxatu; beste ikasgela batera bidali (gutxitan egin badu ere); jolasaldian baloirik gabe zigortu...

Disrupzioa 5. kurtsoko ikasgelan

Kasuaren azterketa:

Kasua 4-5 pertsonako taldeetan aztertu eta ondoko galdera hauek erantzuten saiatzea:

- *Ikasleen zein zailtasunek eragiten dute deskribatutako egoeran?*
- *Irakasleen zein erantzunek eragiten dute gehiago egoeran?*
- *Testuinguruko zein alderdik dute harreman zuzena deskribatutako zailtasunekin?*
- *Zailtasunak hobetzeko, zein alderdi landu daitezke ikasleekin?*
- *Zer egin beharko lukete irakasleek?*
- *Zer aldatu beharko litzateke testuinguruan egoera hobetzeko?*

HIRUGARREN SAIOA: Disrupzioari aurrea hartzea. Ikastetxearen antolaketa.	dis03a00
<p>HELBURUAK:</p> <ul style="list-style-type: none">• Taldeko kideen artean ezagutza eta konfiantza garatzea.• Erabakiak adostasunez hartzeko trebetasunak garatzea.• Jokabide disruptiboen prebentzioan eragiten duten faktoreak ezagutzea.• Aztertzea ikastetxean zer alderdi prebentibo gertatzen diren, zein falta den edo zein diren gabezia dutenak. <p>JARDUERAK</p> <ul style="list-style-type: none">• "Aurkezpenak amarruarekin": parte-hartzaileak ezagutzeko jarduera, konfiantza sustatuz.• "Ikastetxearen antolaketak disrupzioari aurrea hartzen dio". Testua irakurri eta aztertzea. Testutik abiatuz, ikastetxe bateko ebaluazio gida taldeka prestatzea.• "Ametsezko eskola": ikastetxe bateko hezkuntza eta antolaketa alderdien gaineko antzekotasunak eta aldeak adosteko eta haiez jabetzeko jarduera.• "Hausnarketa jarduera". Ikastetxean berean disrupzioari aurrea hartzeko egiten diren ekintzak aztertzeko eta hobetu beharreko indarguneak eta alderdiak analizatzeko jarduera.	

Aurkezpenak amarruarekin.	dis03a01
<p>HELBURUA: Parte-hartzaileen ezagutzan sakontzea eta taldea osatzen joatea.</p> <p>PROZEDURA: Dinamizatzaileak aurkezpen txandari ekingo dio. Berari buruzko hiru baieztapen edo ezeztapen eginen ditu eta horietako bat faltsua izanen da (adibidez: "bederatzi anaietatik bosgarrena naiz, italiar jana atsegin dut eta ez zaizkit bihotzeko programak gustatzen"). Gainerakoak ahaleginduko dira horietako zein den faltsua asmatzen. Jarraian, taldeko kide bakoitzak gauza bera eginen du. Bukatzean, hitz eginen da pertsonen ezagutzak bizikidetzan hobetzen ote duen eta gatazken trataera errazago egiten ote duen.</p> <p>C. Boqué-tik hartua (2002)</p>	

Ikastetxearen antolaketak disruptioari aurrea hartzen dio	dis03a02
<p>Irakurri ondoko testua eta 5-6 pertsonako taldeetan prestatu ikastetxe bateko ebaluazio gida. Galdera-sorta edo item zerrenda moduan egin daiteke, gero ikastetxe bateko irakasleek osa dezaten. Testuan ageri diren ezinbesteko alderdiak bildu behar ditu, baita ikastetxeko antolaketari dagozkionak eta horiek jokabide disruptiboen prebentzioan duten ondorioa ere. (Ikusi testuaren bukaerako adibidea).</p>	
<p style="text-align: center;">Testua</p> <p style="text-align: center;">Ikastetxearen antolaketak disruptioari aurrea hartzen dio C. Gallego-tik eta P. Ventura-tik egokitua (2008)</p> <p>Jokabide disruptiboari aurrea hartzen dieten faktoreen artean daude ikastetxearen antolaketa, ikasgelaren kudeaketa eta irakaslearen lana. Horiek oro gaur egungo bibliografian ageri dira. Hona hemen disruptioari modu positiboan aurrea hartu eta ikastetxea antolatzen duten alderdiak:</p> <p style="padding-left: 40px;"><i>"Bizikidetzarako aldeko giro lortzea estu loturik dago gauzak berariaz egiteko moduekin (...). Ordena-, diziplina- edo kontrol-prozesuen euskarria eskola antolaketa izanen da, haren errealitatea eta ikastetxeko eta ikasgelako giro baikorra erraztuko dituena". (Fernández, 1998)</i></p> <p>Egile batzuek, besteak beste, Fernandezek (1998) eta Torrego eta Morenok (2001) uste dute eskolako antolaketa eta ikastetxearen filosofia ikastetxeetan gatazkei esku hartzean giltzarri direla. Ildo berean, Watkinsek eta Wagnerrek (1991) eskola diziplinaren gainean egindako lanetan aholkatzen da ikastetxean modu globalean tratatzea bizikidetzara hobe lortzeko. Haien iritziz, curriculumak, eskolako antolaketak eta taldeen sare sozialak, bereziki, eta ikastetxearenak, oro har, bere kideen portaeran eragin sakona dute.</p> <p>Ikastetxearen ikusmoldetik begiraturik, badira disruptioa lagundu edo, aitzitik, murriztu dezaketen antolaketa faktoreak.</p> <p>Antolaketako alderdiei dagokienez, ikasturtearen hasieran ikastetxe batean hartzen diren erabakiek lagundu dezakete disruptioari aurrea</p>	

hartzen edo, aitzitik, sustatzen. Beraz, garrantzitsua da honako hauen inguruko erabakiak arretaz balioestea:

- Ikasleak taldeetan esleitzea irizpide hauen arabera: ikasgelako zenbat ikasle; zenbat mutil/zenbat neska; hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen banaketa; errepikatzaileak; Espainiako eskola sisteman berandu sartu diren ikasleak; deprebazio soziokulturala duten ikasleak; arriskuan dauden ikasleak...
- Guneen banaketa; zenbait ikastalde kokatzea; mugikortasuna eta ikasgeletan egotea...
- Ikasleen ordutegiak (irakasgaien banaketa, atsedanak, desplazamenduak...)
- Aniztasunari erantzutea eta eskuragarri dauden baliabideak.
- Baliabide materialak eta pertsonak banatzea.
- Tutoretzak irakasleei esleitzea.
- Gatazkak daudenean irakasleek nola jardun behar duten jakiteko protokoloak.

Eskola eraginkorren gaineko ikerketaren esparruko eskolako antolaketa eta giroari buruzko azterlanetan agerian geratu dira bizikidetzaren kudeaketan ezinbestekoak diren bi jarduera-ildo: ikastetxeko bizitzaren oinarrizko alderdiak arautzen dituzten arau argi eta ezagunak definitzea eta ikasleak eskola erakundearen funtzionamendu onean inplikatzea.

Disrupzioa ikastetxeko arauari estuki loturik dago. Araudiak parte-hartzetik eta adostasunetik abiatu egin eta azaltzen badira eta hezkuntza erkidego osoak ezagutzen baditu, ikastetxeko pertsona guztien arteko bizikidetzara arautzeko lagungarriak gertatuko dira.

Ikastetxe bateko antolaketako eta giroko zer alderdik laguntzen eta/edo oztopatzen duten aztertze eta hausnartzeko, irakasleek, familiek, ikasleek eta irakasle ez diren langileek emandako informazioa erabil daitezke. Irakasleen gaineko informazioa jasotzeko inkesta edo galdera-sorta irekiak-edo erabil daitezke.

Laburbilduz, zenbait egilek diotenari jarraikiz, irakasleek eta familiek bat egiten dute esaterakoan ikastetxearen antolaketan badirela disrupzioari aurrea hartzen lagun dezaketen zenbait elementu:

- Ikasturtearen lehen egunetan ikasleak hartzeko

plana izatea eta ikastetxeko arauak eta jarduna ezagutzeko jarduerak egitea.

- Aniztasunari Erantzuteko Planak bermatzen du ikasle guztiek euren gaitasun, interes eta ikaskuntza-estiloen arabera jasoko dutela.
- Irakasleek irakasle taldeak sortzen dituzte (aurrez ikusten dira bilerak egiteko denbora eta guneak, orientazioarekin eta ikasketa-burutzarekin koordinatzea) batera esku hartzeko prozedurak adosteko, hezkuntza gaiak lantzeko eta ikastalde eta ikasle jakinen egoerak aztertzeko.
- Tutoretza Plana izatea ikasle guztiendako prestatuko diren eskumen sozio-emozionalerako eta gatazkak konpontzeko jarduerekin.
- Bizikidetzaren Batzordeak ez du zigorrak ezartzea helburu duen diziplina batzorde modura jarduten; bizikidetzaren kudeatzeko eredu integratu baten motorra da (Torrego)
- Ikastetxeko Bizikidetzaren Planean biltzen dira bizikidetzan gertaturiko zailtasunik handienak, esku-hartzearen lehentasunak eta helburuak eta bizikidetzaren aldatzen den kasuetan jarduteko prozedurak eta protokoloak. Hedapenerako mekanismoak bildu dira.
- Ikastetxeko arau-esparrua prestatzeko lanetan hezkuntza erkidego osoak (irakasleek, ikasleek, familiek) hartzen du parte eta adostasunez prestatzen da. Prozedura bat baino gehiago erabiliz bermatzen da araudiaren hedapena eta araudia denek ezagutuko dutela.
- Gatazkak gertatzen direnean irakasleek esku hartzeko prozedura argiak, azkarrak eta ekonomikoak izatea.
- Gatazkak modu baketsuan konpontzeko prozedurak izatea –prozedura horietan bitartekaritza sartuta egonen da–.
- Ikasleek ikastetxeko bizikidetzaren parte hartzen dute honako hauen bidez: ikasgelako ordezkariak, iradokizun-ontziak, zereginetan laguntzea, jolasaldietako laguntzaileak, bizikidetzako

eragileak...

- Ikastetxean lehentasunez hartzen da kontuan irakasleen esparru hauetako prestakuntza: "Gatazkak konpontzea"; "Talde-dinamikak"; "Ikasgelaren kudeaketa"; Gizarte- eta komunikazio-trebetasunak"...
- Ikastetxeak irakasleen eta ikasleen artean bultzatzen du ikastetxearen partaide izatea.
- Ikastetxeko gune fisikoak mantendu eta zaintzen dira eta ingurunea atsegina izan dadila ahalegintzen da. Arriskurik handieneko guneak eta denborak (sarrerak eta irteerak; jolasaldiak; jolastokiak; komunak...) zaintzen dira.
- Eskola inguruneaz gaindiko arazoak beste erakunde edo zerbitzu batzuetara bidaltzen dira.
- Familien lankidetzak sustatzen da, zenbait estrategia erabiliz.

Ikastetxea ebaluatzeko gida Galdera-sorta

Eredu moduan erabiltzeko zatia

	Bai	Ez	Ez daki
Ikastetxeko arauak irakasleon, ikasleon eta familion artean adosten ditugu.			
Maiz ikasleek eta/edo gurasoek ez dakite zein diren ikastetxeko arauak.			
Ikasleak ikastetxeko parte direla sustatzeko jarduerak egiten dira.			
Familiekiko komunikazioa jarraia eta naturala da.			
Irakasle bakoitzak bere gelan tutoretza ordua ongien dakien bezala antolatzen du.			
Ikastetxean sartu berriak diren irakasleei esaten zaie zein diren ikastetxeko ekintza-planak eta prozedurak eta ikastetxeen partaide izateko ahaleginak egiten dira: barne arudia, bizikidetzeta plana, tutoretza plana, aniztasunari erantzuteko plana, irakasleen prestakuntza...			
Ikastetxean irakasleok berariazko prestakuntza jaso dugu diziplinaren, eta ikasgela kontrolatzearen eta kudeatzearen gainean.			
Bizikidetzeta batzordearen eginkizun nagusia zein zigor mota ezarri erabakitzea da.			
Ikastetxean badira gatazkak modu baketsuan konpontzeko prozedurak.			
Ikastetxean bada ikasleak eta beren gurasoak hartzeko toki egoki bat.			
Ikastetxearen instalazioak (gelak, tailerrak, laborategiak, jolastokiak, kiroldegia, liburutegia...) onak dira. eta badira irakaslanerako beharrezkoak diren materialak.			
Arriskurik handieneko gune eta denborei arreta eta gainbegiraketa berezia egiten zaie: sarrerak eta irteerak; korridoreak; jolasaldiak; bainugelak...			

Ametsezko eskola	dis03a03
<p>HELBURUA: Adostasun eta lankidetzarako trebetasunak taldean garatzea. Antzekotasunez eta aldeez jabetzea.</p> <p>PROZEDURA: 6-8 pertsonako taldeak eginen dira eta euren ametsezko ikastetxea edo eskola nolakoa izanen litzatekeen diseinatzeko eskatuko diegu. Alderdi hauek islatu beharko dituzte: alderdi materialak (guneak, kokapena, dotazioa...); alderdi pertsonalak (profesionalak, ikasleak, familiak...); antolaketa alderdiak (egutegia, ordutegia, taldekatzeak, organigrama...) eta bizikidetzaren alderdiak (araudia, harremanak, gatazkak konpontzea...): 30 minutuko epean ados jarri behar dute esparru guztietako oinarrizko alderdietan. Denbora bukatutik, esanen diegu euren proiektua azaldu behar dietela gainerako taldeei eta aurkezteko modua aukeratu dezaketela: kartela, erakusketa informala, gidoia, eskuorria... Talde bakoitzak 10 minutu izanen ditu aurkezpena prestatzeko. Jarraian, talde bakoitzak bere "ametsezko eskola" nolakoa izanen litzatekeen azalduko du gainerako taldeen aurrean.</p>	

HAUSNARKETA JARDUERA	dis03a04
<p>Bakarka pentsatu orain arte zer aplikatu den ikastetxean disrupzioaren esparruan, zer zailtasun dauden eta praktikan jar litezkeen soluzioak zein diren.</p> <p>Jarraian, 3-4 pertsonako taldeetan, komentatu, bateratasunik dagoen egiaztatu eta erabaki bat hartu talde handian batera jartzeko.</p>	
Egindako jarduerak	
Zailtasunak	
Izan daitezkeen soluzioak	

LAUGARREN SAIOA: Disrupzioari aurrea hartzea. Ikasgelaren kudeaketa.	dis04a00
<p>HELBURUAK:</p> <ul style="list-style-type: none">• Taldeko kide guztiek parte hartzea.• Jokabide disruptiboari aurrea hartzeko elementuen ezagutzan sakontzea.• Urruntzeko beharraz jabetzea arazoei soluzio berriak aurkitzeko.• Ikasgelaren kudeaketa zuzenaren ondoriozko alderdi prebentiboak aztertzea.• Ikasgela kudeatzeko estrategiak garatzea. <p>JARDUERAK</p> <ul style="list-style-type: none">• "Trumoiaren seme-alabak". Testua irakurri eta aurkeztu den egoerari taldean iruzkinak egitea.• "Disrupzioa. Prebentzioa". Power point erako diapositibak aurkeztea disrupzioari aurrea hartzen dioten jarreraren eta ekintzen gainean.• "Angeluzuzenak": lankidetzan esperimendatzeko eta arauari errespetua izateko jarduerak.• "Teknikariak aholkatzen dute": taldeak araudiaren gainean egin beharreko jarduerak, norberak taldean nola egon behar duen jabetzeko eta askotariko soluzioak aurkitzeko taldetik urruntzeko beharra balioesteko ere balio duena.	

<p style="text-align: center;">Trumoiaren seme-alabak Iruzkina egiteko testua</p>	<p style="text-align: center;">dis04a01</p>
<p>Honatx hemen Lalana eta Almárcegui-ren <i>Los Hijos del Trueno</i> eleberriaren zati bat. Istorio atsegin hau "institutuko eleberritxo"-en azpigeneroko satira bat litzateke. Hezkuntza sistema baztertzailen zigorra, eskolako porrotari umorez ematen dio soluzioa.</p> <p>Nazioko Gobernuak behin betikoz bukatu nahi du eskolako porrotarekin. Horretarako, Hogeitabiaren dekretua argitaratu du. Klaseak soilik 22 ikaslerendako izanen dira eta sobran dauden ikasleek soberakinak biltzen dituzten institutuetara joan beharko dute. Institutu bakoitzak erabakiko du zein baztertu. Itxuraz 1. soberakinean, zeinetan istorio hau garatzen den, "etxeko onenak" daude. Hala ere, porrot egin duen talde honek (baldarrak, frikiak, bitxiak, moldagabeak, buruargiak, gaizkile izateko bidean daudenak, jakintsuak, erreibindikatzaileak...) Gobernuari lezioa eman dio, Gobernua saiatu baita desberdinak izatea okerragoak izatea dela sinetsarazten.</p>	
<p>"Gomis eta Venancio aldi baterako kanpoan, hirugarren mailako klasea hamalau ikaslekin gelditu zen. Hamalauak zur eta lur gelditu ziren on Metodiok, hautsik ez zegoela ziurtatzeko hatza irakaslearen aulkian pasatu ondoren, aulkian eseri eta hankak mahai ganean jarri ondoren bere paper-zorrotik eguneko egunkaria atera eta axolagabetasun handiz irakurtzen hasi zenean.</p> <p>Bost minutu beranduago, Valentín Primiciak eskua altxatu zuen, baina ez zuen irakaslearen atentzioa ematerik lortu. Gero, eztarria garbitu zuen inolako emaitzarik lortu gabe. Azkenean, eztarria gogor, oso gogor garbitu zuen.</p> <ul style="list-style-type: none">- Ejemmmmm...! Irakasle!- Zer gertatu da? –galdetu zuen on Metodiok amorazio puntu batez eta begirada gertakarien ataletik kendu gabe. Eztarria hartua duzu? Mendazko gozoki bat nahi?- Ez, jauna. Jakin nahi nuke... gaur zer lezio ikasiko dugun.- Bakar bat ere ez.- Orduan, gaur zer egingen dugu?- Deus ere ez.- Deus ere ez? <p>Oraingoan bai, irakasleak egunkaria jaitsi eta begiratu orokor eta axolagabea bota zien bere ikasleei.</p> <ul style="list-style-type: none">- Bai: deus ere esan dut. Deus ere ez! Minus berrehun eta hirurogeita hamahiru Celsius gradu. Hau da, zero absolutua. Ez dugu deus ere egingen. Ez gaur, ez bihar, ezta beste ezein egunetan ere. <p>Ikasleek elkarri begiratu zioten. Ikasle batzuei begitxoek poztasunez ñir-ñir egiten zieten; beste batzuk, orde, kezkatuak zeuden; den-denak harriturik zeuden. Haietako batek ahapeka esan zuen: "A zer mahuka!".</p> <ul style="list-style-type: none">- Baina... ez gara egunero klasera etorriko deus ez egiteko – azpimarratu zuen Valentinek.	

Prentsa irakurtzeari berriro ekin zion On Metodiok arnasestuka hasi zen, egunkaria zabalik utzi zuen mahai gainean eta Ricardo Zamoraren ikasle ohi eta argiari aurpegira bota zion.

- Iruditzen zait ez duzula deus ere ulertu zer gertatzen den hemen, motel. Ea hitz gutxitan azaltzeko gai naizen (...)

(...) Gutako bakoitzak nahi duguna egin dezakegu -esan zuen on Metodiok, pixka bat nahasia-. Baina molestatu gabe. Honako hau izanen da nire klaseko arau bakarra.

- Jolastokira joan gaitezke futboleant egitera? -galdetu zuen Marina Covarrubiasek.
- Ez. Ez futbolik, ez ogitartekorik. Hori guztia, jolasaldian.
- Eta lo egin dezakegu? -galdetu zuen Svetlana Miraflores kubatar neska ezin ederragoak Karibe aldeko doinuarekin-. Lo egin dezakegu? Bart ez dut begirik bildu, kirioak dantzan izan ditudalako.

On Metodiok sorbaldak uzkurto zituen.

- Non eta ez duzun zurrungarik egiten...

Valentin *Hiru mosketariak* irakurtzen hasi zen. Roman Lopesanchezek *Trumoiaren seme-alabak* gazteendako eleberria atera eta irakurtzen hasi zen. Eleberria bere auzoko liburutegitik hartu zuen. Carmen Miravallesek Amaralaren azken albuma *discman*-ean sartu, entzungailuak jarri eta folio tamainako koaderno berezia eta Parker luma atera zituen -lumaz baizik ez zuen idazten-. Bere ikaskideen ezaugarri pertsonalen gaineko lehen oharrak hartzen hasi zen segidan. Herrerok, Bielak eta Manteconek bi ikasmahai elkartu, karta-sorta atera eta tutean jokatzeko hasi ziren. Margarita Grisek marrazketa koaderno eta lapitzak atera zituen eta on Metodioren karikatura marrazten hasi zen. Amalia Ballesterosek xakean jokatzeko makinatxoa atera eta azken partida jokatzeari ekin zion berriro. "Dorrea alfil 3ra, xake". Marina Covarrubias *Marca* irakurtzeari ekin zion. Svetlanak lepo inguruan lepoko puzgarria jarri eta begiak itxi zituen. Gainerakoak, ahapeka, itsasontzietara jokatzeko hasi ziren.

Bat-batean, ikasgelako atean kolpetxo batzuk entzun ziren. Jarraian ireki egin zen Fidel Contreras jaunak bultzatu zuenean, gozo baina sendo aldi berean.

- Metodio -handik esan zuen, soinu neutroa izaten saiatu zen doinuaz-. Atera zaitezke unetxo batez?

Literaturako irakaslearen aurpegiak amorru galanta erakutsi zuen, baina men egin zion.

- Jarraitu egiten ari zaretenarekin -esan zion bere ikasleei ikasgelatik atera baino lehenago-. Ez ezazue deus ere hondatu, basatitxo horiek! Berehala nator.

On Metodiok hirugarren mailako ikasgelako atea itxi eta atzean utzi orduko, zuzendaria zertxobait urrundua zen. Korridorearen erditik begiratu zuen lankidea, besoak bularraldean gurutzaturik zituela.

- Jakin daiteke zertan ari zaren? -galdetu zion bat-batean, jarraian, haren erantzuna hartu baino lehenago eta seguruenik ikasgela barrutik entzuteko modukoa zen doinuarekin jarraituz-. Entzun dizut, Metodio! Dena entzun dut eta lotsaturik nago! Ez zen hori erabakitakoa aurreko astean egin genuen irakasleen bileran. Denok ados geunden gerakinekin institutu arrunt bat egiten genuela. Gure ikasleekin arreta bera izanen genuela eta haiekin ahalegin bera egiten genuela gutako edozein bestelako destino batean egon izan balitz bezala. Zertara dator orain hau?

(...)

On Metodiok korridorean itxaron zuen Fidel Contrerasek bere bulegorako bidean desagertu arte. Gero, burua jaitsi, arnasa sakon hartu eta berriro bere klaseari buruz jo zuen.

Sartzeko unean zegoela, gelditu egin zen, harriturik. Belarriak zorroztu zituen eta geldirik eta isilik gelditu zen minutu erdiz. Gero "Posible ote?" xuxurlatu zuen, denak *in fraganti* harrapatzeko asmoarekin ikasgelako atea zakar ireki aurretik.

-Baina, zer gertatzen da hemen? -oihu egin zuen ahots apokaliptikoz-. Klasetik hamar minuturako joan... eta itzultitakoan zer aurkitu dut? Zalaparta txikiena ere egiteko gai ez diren hamalau mozolo! Ez naiz harritzen bada, zuen institutu ohietatik botatzea, halako odolik gabeak! Zer uste duzue hau ospitale bat dela? Hau, ikasketa ertainetako institutu bat da, gerente nazionalak beste zerbait nahi badu ere. Hona bi gauzataraz etortzen da: ikastera eta zalaparta egitera. Irakaslea klasetik ateratzen denean, ikasleen betebeharrak naturaletako bat da zalaparta ateratzea. Baina ikusi dut bai zuekin ez dagoela ezer egiterik. Zuek hala nahi izan duzue. Hau bukatu da! Ederra egin duzue! Ergel alaenak! Karta horiek, kanpora! Neskato, belarrietatik utikan entzungailuak horiek! Zu, gorde xakearen makinatxo hori! Irakurketa liburu horiek alde nire begien bistatik! Ez badakizue ikasle arruntak bezala jokatzeko, ikasle soil moduan jokatzeko ikasi beharko duzue. Atera literaturako liburuak! Ireki lehen gaian!

Denek agindua bete zutenean, irakasleak begiratu panoramiko, motel eta izugarria bota zuen. Bazirudien azken minutuan hamar zentimetro egin zuela gora."

Lalana, F. eta Almárcegui, J. M. (2004) Los hijos del TRUENO Madril Santillana, Alfaguara bilduma.

Testua irakurri ondoren, komentatu 3-4 pertsonako taldetan honako alderdi hauek kontuan hartuz:

- ikasgelako giroa
- irakaslearen eta ikasleen arteko komunikazioa
- arauak
- ikasleen jarrerak, aniztasunaren isla?
- alderdirik deigarrienak
- egoeraren komikotasuna
- irakaslearen jarrera aldatzeko zergatiak

Laukizuzenak

dis04a03

HELBURUA: Ahozkoa ez den komunikazioa lankidetzarako ataza batean esperimentatzea. Arauak garrantzirik gabeko ataza batean betetzen diren aztertzea.

PROZEDURA: Eratu 6 pertsonako taldeak. Kide bakoitzari ebakin bat emanen zaio. Sei ebakinekin laukizuzen bat osatu behar dute. Ezin da hitzik egin eta pertsona bakoitzak soilik bere ebakina ukitu eta mugitu dezake. Ahoz ez den beste modu batean komunikatu daitezke elkarren artean. Talde guztiek laukizuzena osatu dutenean (edo 10 minutu igaro ondoren) azaltzen da nola joan den lana, zer nolako lankidetzaz izan den taldean eta arauak errespetatu diren. Parte-hartzaile kopuruaren arabera 8 kide bitarteko taldeak egin daitezke. Kopuru handiagoa ateratzen bada, jarduera zailduko da eta, halakoetan, hobe da bat behatzaile izatea.

Hostie-tik (1994) egokitua

Teknikariek aholkatzen dute

dis04a04

HELBURUA: Norberak taldean nola egon behar duen jabetzea eta askotariko soluzioak aurkitzeko taldetik urruntzeko beharra balioestea.

PROZEDURA: Gelaren erdian jarriko diren 6-8 pertsonako talde bat osatuko da. Haien inguruan gainerako parte-hartzaileak jarriko dira. Taldekide bakoitzak kanpoko zirkuluko kide bat "kontseilari tekniko berezi" moduan aukeratuko du. Kontseilari hori zirkulu handian jarriko da, haren atzean, hura arazorik gabe entzuteko moduan. Kontseilari hautatu ez dituztenak zirkulutik kanpo geldituko dira, behatzaile moduan. Erdian dagoen taldea araudiari buruz eztabaidan hasiko da. Arauen gaineko zenbait alderdiren gainean aritu beharko dute:

- hezkuntza erkidegoko kideak oinarrizko zein hiru arautan egonen lirateke ados
- nola lortuko litzatekeen jende guztia erkidego horren jardunean inplikatzeari
- arauak betetzeak edo ez betetzeak zer ondorio izanen litzatekeen
- nola lor daitezkeen arauak denboran zehar mantentzea
- ataza horien ardura zein pertsonak eta taldek hartu beharko luketen

10 minuturen buruan, solasaldia eten egingo da eta 5 minutu emanen dira bakoitzak bere kontseilariarekin hitz egin dezan. Jarraian, solasaldiari ekingo zaio beste 10 minutuz. Berrito eten egingen da solasaldia eta bakoitzak berrito beste 5 minutuz bere kontseilariarekin hitz egingen du. Berrito solasaldiari ekingo zaio beste 10 minutuz. Talde handian denak hasiko dira solasean. Azaltzen da kontseilariaren ekarpenak baliagarriak izan diren, haren kontseiluak erabili diren, solasaldia kanpotik begiratzeko eta ekarpenak egin ahal izateko ikusmoldea...

BOSGARREN SAIOA: Irakaslea, ikasgelaren kudeatzaile.	dis05a00
<p>HELBURUAK:</p> <ul style="list-style-type: none">• Pertsona guztien parte-hartzea sustatu eta taldean giro lasaia sortzea.• Irakasleak ikasgelaren kudeaketan duen rola aztertzen hasia.• Ikasgela kontrolatzeko estrategiak ezagutzea.• Irakasleen irakaslanerako gaitasunak eta trebetasunak balioesteko tresnak ezagutzea. <p>JARDUERAK</p> <ul style="list-style-type: none">• "Irudikatu zer naizen, irudikatu zer zaren...". Taldeko parte-hartzaileen arteko ezagutza garatzeko dinamika, komunikazioa sustatuz.• "Irakasle hasiberria". Testua irakurtzea eta iruzkinak talde txikian egitea, zenbait galdera erantzunez.• "Irakaslerik onena". Talde-dinamika, irakasle onek dituzten ezaugarrien eta nolakotasunen gainean hausnartzeko.• "Ikasgela kontrolatzeko estrategiak". Testua irakurri eta bakarka eta taldean aztertzea. Irakasleendako praktika onen dekalogoia taldeka prestatzea.• "Irakasleentzako hausnarketarako galdera-sorta". Norberak hausnartzeko jarduera, galdera-sorta bakarka betetzea.• "Irakasle trebea". Power point erako diapositibak aurkeztea disrupzioari aurrea hartzen dioten irakasleen jarreraren eta ekintzen gainean.	

Irudikatu zer naizen, irudikatu zer zaren... dis05a01

HELBURUA: Taldekide guztien ezagutza sakondu eta pertsonaren alderdiak hautematen ikastea, umorez eta irudimenez, denen ekarpenak onartuz.

PROZEDURA: Bakoitzari galdera-sorta bat emanen zaio osatu beharreko esaldi hauekin edo antzekoekin:

- animalia bat bazina, ... izanen zinateke
- jaki bat bazina, ... izanen zinateke
- zuhaitz bat bazina, ... izanen zinateke
- kolore bat bazina, ... izanen zinateke
- musika-tresna bat bazina, ... izanen zinateke
- ipuin bateko pertsonaia bat bazina, ... zinateke
- objektu bat bazina, ... izanen zinateke
- lore bat bazina, ... izanen zinateke
-

Bakoitzak bere galdera-sorta bete ondoren, 4-5 pertsonako taldeak egin eta zirkulutan jarriko dira. Zirkulu bakoitzaren barnean, pertsonak iritziak trukatu dituzte, esate baterako, jakiteko pertsona bakoitzak bere burua nolakotzat duen eta pertsona bakoitzak taldeko gainerako kideak nolakotzat dituen, betiere galdera-sortan proposatutakoari dagokionez. Azaldu behar da zer dela-eta dagoen iritzi hori. Denek hitz egin ondoren, pertsona bakoitzak bizpahiru puntu hautatu behar ditu, gainerakoek esandakoa eta berak esandakoa bilduz, eta talde osoari horren berri eman behar dio.

IRAKASLE HASIBERRIA	dis05a02
Irakurri testua eta testuarekin batera datozen galderak 3 pertsonako taldeetan erantzun.	
IRAKASLE HASIBERRIA	
<p>"Lehen mailako tutoretza bat eman diote, nahi izanen lukeen azkena. Hala esana zion Nicolasek, lanbidean hiru urte daraman lankideak. -Saia zaitetz lehen mailako tutoretza eman ez diezazuten: okerrenak dira.</p> <p>Hortxe behar zuena. Lehen mailako hogeita hamabost! -Hogeita hamabost -ahapeka esan du zerrenda eskuan-. Hogeita hamabost egokitu zaizkit... eta, gainera, lehen mailakoak. Ikasgelan sartzean, esan beharrekoa entzunarazten saiatuko da hainbeste ahots, aulki eta karpetek eragindako zalapartan. -Isilik! -oihu egin du bat-batean. Ez du bere burua ezagutu neurria hala galtzean. Oihua hitz magiko bat balitz bezala, ahotsak apaldu dira eta aulkiak ez dira mugitu. Hirurogeita hamar begik irakasle gazteari erreparatu diote; adi daude. -Eseri, mesedez. Dardara moduko zerbait eta listu-irenste saihetsezina. -Ea ez diren konturatzen, ea ez diren konturatzen; bestela, zureak egin du. Lehen egunetik beretik lerroan jarri behar dituzu: ikasleek kontrolaturik daudela uste izan behar dute eta zuk ikasleak menderatzen dituzula sinetsi behar duzu; bestela, akabatuko zaituzte -hori ere esan zion Nicolasek bezperan. Izenak irakurtzen hasi da; mekanikoki egin du, begirada altxatu gabe. Arias. Benlliure. Couselo. Bakoitzak bere moduan erantzun du. "Hemen", "bai", "existitzen naiz" barregarria; zerrendaren erdialdera hasi dira barretxo isekariak. Tutoreak ez du zirkinik egin eta jarraitu egiten du: Vázquez. Zurita. Hala, hogeita hamabosgarrenera iritsi arte. Begiratzen ausartu da. Begiratua batetik bestera dabil, lehenago berarekin egiten zuten bezala, eta bere oroitzapenetan bere irakasle ohien doinua, ahotsa eta hitzak bilatzen ahalegindu da. Emandako larderia horrekin jantzi da eta bere buruari galdetu dio bere tokian balego zer egingen zukeen on Rufok. Irakasle zaharraren irudia gogoratzerakoan, halako nostalgia batek inguratu du. -Ordutegia eman behar dizuet. "Dizuet" horrek urruntze hori markatu du. Ezta ezer ere gelditu den</p>	

bezperan ongietorriko hitzaldi barregarri bat prestatu zuen irakasle gazte hartaz. "Zuen laguna, ikaskidea... izan nahi nuke...". Bere irakasle zahar haiek egin zuten gauza bera egiten ari da eta, tamalez, haien zorroztasuna, maiz zaharkituztat joa, eskertu egiten du, bizirik irauteko bidea markatu baitio.

Klarionaren hautsak egunak eta orduak arbelean marraztu ditu. Urriaren 5a. Kurtsoa hasi da.

Gándara, L. (1994) Brumas de octubre. Para eso están los amigos. Madril: SM argitalpenak.

TESTUAREN IRUZKINA EGITEKO GALDERAK

- Irakasle berriaren ustez, nolakoa izanen da bere lana?
- Bere lagunak zer kontseilu eman dio?
- Taldeari aurkeztean zer ezagutza aplikatu du?
- Taldeko kide guztien artean erabaki ezazue hasiberria den irakasle bati emateko oinarrizko 3 kontseilu.

Irakaslerik onena

dis05a03

HELBURUA: Hausnartu "irakaslerik onena"ren gainean. Gainbegiratu irakasle onetan agertzen diren nolakotasun positiboak. Konparatu ikuspuntu bat baino gehiago.

PROZEDURA: Parte-hartzaile guztiak zirkuluan eseriko dira. 3 minutuan bakoitzak pentsatu beharko du ikasle izan zenean izan zuen irakaslerik onena izan zen. Ahalegindu behar du irakasle hark zituen nolakotasun, trebetasun, estrategia metodologikoak laburtzen.

Bakarka hausnartu ondoren, batera jarriko da zirkuluaren ordenari jarraikiz.

Dinamizatazaileak bere libretan oharrak har ditzake, bukaeran atera diren nolakotasunak laburtu ahal izateko.

Ariketa egin ondoren bateratasunak aztertuko dira. Irakasle taldeek Prestakuntza Mintegietan (07/10) egindako ekarpenekin alderatu daitezke.

Ikasgela kontrolatzeko estrategiak.	dis05a04
Irakurri bakarka testua eta esan zein estrategiarekin dagoen ados. Jarraian, 5-6 pertsonako taldeetan, komentatu aukeratutako estrategiak. Estrategia horiek eta taldeak eraginkortzat dituen beste batzuk hartu eta haiekin ikastetxeko irakasleendako praktika onen dekalogoia egin. Taldeen artean bateratu eta saiatu akordioak lortzen.	
<p style="text-align: center;">Testua Ikasgela kontrolatzeko estrategiak.</p> <p>Juan Vaellok esaten duen bezala, klasea ez da soilik kontrolarekin kontrolatzen. Kontrola ikasgela kudeatzearen zati bat besterik ez da. Klasearen kudeaketan alderdi asko daude. Irakasleei laguntzeko estrategietako batzuk honako hauek dira:</p> <p style="text-align: center;">Saioa hastean</p> <ul style="list-style-type: none">○ Agurtu.○ Konfiantza agertu, erlaxatua egon.○ Umore onez hasi.○ Ikasgelako alderdi fisikoak gainbegiratu (mahaien ordena eta garbitasuna, zorua, arbela, leihoak, esekitokiak, bizkar-zorroak...).○ Beharrezkoa bada, ikasgelako araudia edo zenbait muga gogorarazi.○ Saioa edukiekin eta egiturarekin hasi.○ Itxaropen positiboak erakutsi.○ Ikastalde osoaren arreta bereganatu. <p style="text-align: center;">Saioan zehar:</p> <ul style="list-style-type: none">○ Edukiak modu batean baino gehiagotan aurkeztu, ikastaldearen ikaskuntza-maila eta -estiloen aniztasuna kontuan hartuz.○ Edukiak gaurkotasuneko gaiekin eta/edo ikasleendako interesgarriak diren gaiekin lotu.○ Ikaskuntzen erabilgarritasuna erakutsi.○ Askotariko jarduerak eta taldekatzeak egin (talde handia, bikoteak, talde kooperatiboak, bakarkako lana).○ Bakarka eta mahaian egin beharreko lanarekin hasi.○ Behatu arretarik ezako zantzuak, ulermen gabezia, horiek bideratzeko jarduerarik eza.○ Agindu eta azalpen argi eta berariazkoak eman, eta ulertu direla egiaztatu.○ Azalpenak ikusizko materialarekin, material grafikoaren, material esperimentalarekin... lagundu.○ Zailtasunak dituzten ikasleekin denbora erabili.	

- Lan-maila bat baino gehiago behar duten jarduerak prestatu ikasgelako azpitalde desberdinei egokitzeko.
- Aniztasunari erantzuteko materialak prest izan (laguntza, errefortzua, zabaltzea).
- Denbora-tarde batzuk utzi ikasleek elkarren artean hitz egin dezaten.
- Denen parte-hartzea baloratu eta ekarpenak bildu.
- Ikasleen iritzia zentsuratu gabe entzun.
- Ikasleek metodologiaren gainean egindako iradokizunak bildu.
- Taldearen kohesioa lantzen den jarduera laburren bat sartu (ezagutza, elkarrekiko errespetua, autoestimua, balorazioa, elkarrekintza, lankidetzeta...).
- Uneko umorea onartu. Ez onartu isekarik edo barregarri uzterik.
- Ez hartu lehiarako ikusmolderik; ahal dela lankidetzeta bilatu.
- Jarraibide mailako errutinak mantendu (aldaketei eta jardueren arteko trantsizioei buruzko prozedura automatikoak, materialak bildu eta itzultzea, zuzenketak, laguntza eskatzea, ikasgela garbi mantentzea, materiala zaintzea...).
- Ahalegina eta lorpenak onartu, den txikienak izanik ere.
- Ahaleginari notei baino garrantzi handiagoa eman.
- Atzeraelikadura positiboa maiz eman.
- Askotariko teknikak erabili: eztabaidak, erakusketak, rol-playing-a...
- Laneko erritmoa mantendu eta "espazio hutsik" ez utzi.
- Denen artean arreta banatu, pertsona batek edo talde batek arreta monopolizatzen ez utzi.
- Ez eten jarduerak oharrekin, berriekin, ohartarazpenekin...; utzi azken hauek bukaerarako.

Jokabide desegokiei edo disruptiboiei aurrea hartzea

- Animoa egonkor mantendu.
- Jokabide egokiak indartu.
- Gainbegiraketa jarraitua mantendu (agerian utzi ikasgelaren espazio osoan...).
- Ikasleak ezagutu (interesak, gustuak, ezaugarriak, egoera pertsonalak...).
- Taldearen portaera sendotu, portaera hori araei egokitu bazaie.
- Atentzioa ematea helburu duten portaera disruptiboak alde batera utzi. Ikaslea lagundu lanean ari den bitartean. (Badira alde batera utzi behar ez diren jokabideak: irainak, erasoak, hizkuntza sexista edo arrazista...)
- Atentzioa lanean jarri.
- Jokabideen arrazoiak ulertzen saiatu.
- Azpitalde negatiboak bereizi.
- Buruzagi negatiboak pribatua kontrolatu.
- Klasearen bukaeran gogoan hartu beharreko gorabeherak idatziz bildu.
- Ahozkoak ez diren mezuak bidali, irakaslearen kontzientzia adieraziz baina garrantzi gehiago emanez ikastaldearen lanari eta interesari (nahikoa keinu batekin, begiratu batekin, ikaslearen gunera hurbiltzearekin).
- Ahozko hizkuntzaren eta ahozkoa ez den hizkuntzaren arteko

koherentzia erakutsi.

- Estrategia bat baino gehiago erabili: etenaldi taktikoa, isilunea, begiratu sarkorra...
- Portaera egokirik izan ez duen ikaslearekin hitz egin, diskrezioz errieta eginez.
- Ahalegindu gatazkek "gora egin ez dezaten", doinu lasaia mantendu, mezuak lehen pertsonan erabili, liskarretan ez ibili... arazoa bakarka landu.
- Hutsegite bat eginez gero, ondorioak ezarri, haserretu gabe, inori errurik bota gabe, lasaitasunez.
- Mugak ikasturtean zehar mantendu.

Jokabide disruptibo eta gatazatsuei erantzuteko:

- Ez erantzun oldartsuki.
- Beti errespetua erakutsi, haserre egonik ere.
- Ez eztabaidatu ikasle batekin, ez erronkarik egin ikasle bati eta ez humiliatu ikasle bat.
- Saihestu iritziak eta balorazioak.
- Jokabideak deskribatu, arauak aipatu.
- Ez jeneralizatu eta ez bereizi jokabidea pertsonarengandik.
- Ezezko jokabidea "irain pertsonal" modura ez hartu.
- Autokontrolerako askotariko estrategiak erabili (autojarraibideak, arnasketa, tartea hartzea, nahi gabeko ondorioei aurrea hartzea, ahotsa apaltzea, gorputza erlaxatua mantentzea...)
- Ikasleari ikasgelatik ateratzeko baimena eman, lasaitu arte.
- Aukera bat baino gehiago eman eta ikasleari aukeratzen utzi.
- Oharrak erabili.
- Konpromisoak bilatu jarrerak aldatzeko.
- Probokazioei kasurik ez egin.
- Elkarrizketa atzerati saioaren bukaera arte, norbera lasai ez badago.
- Kontuan hartu zein den jokabidearen helburua (atentzioa ematea, rol bat erabiltzea, aspertzea...).
- Taldeko gainerako kideekiko arreta ez galdu.
- Zigor bat jarri behar bada, zigorra jarriko dela alde aurretik abisatu behar da, berehala jarri behar da, arrazoitua izan behar du, hezkuntza arlokoa eta alternatibez lagundua. Onartu behar da araua haustearen ondorio moduan.
- Klasetik egozteko aukera ez erabili ohikotasunez ("ordainsari" moduan har daiteke).
- Ikaslea deitu, aparte. Elkarrizketak izan, ez "erretolika botatzeko" edo "egia biribilak esateko", erresumin eta erabaki egonkorak lortu beharrean enpatia lortzeko.
- Konpondu daitekeen horretan buru belarri sartu.
- Familiarekin aldian aldiko harremana izan eta elkarlana bilatu.
- Laguntza eskatu, eta laguntza deribatu, arazoa konplexuegia denean edo irakaslearen eskumenaz harago doanean.
- Irakasleen atribuzio eta itxaropen ezkorrak aldatu (irakasleen arteko elkarrizketak zaintzea ez daitezen tipifikazio laburtuen truke bihurtu).

Saioa bukatzean:

Irakasleak bizikidetzan trebatzeko materialak.

- Klasearen bukaera prestatu eta antolatu: denbora kalkulatu, saioa egoki bukatzeko tartetxoren bat izateko moduan.
- Egindakoa laburtu eta etorkizunerako planekin lotu.
- Hurrengo saiorako aurreikuspena egin. atazak, materialak...
- Gelatik lasai atera.
- Ikasleren batekin pribatuan hitz egiteko minuturen bat edo beste hartu, beharrezkoa bada.

				dis05a05
Irakasleek hausnartzeko galdera-sorta C. Gallego eta P. Ventura (2008) Bakarka egiteko galdera-sorta bat da eta helburua norberak hausnartzea da. Ez da komeni batera jartzea.				
	BAI Ia gehienetan	EZ Ia inoiz ez	Gehiagotan egin nahi nuke	Gutxiagotan egin nahi nuke
Arauak				
Orduan sartu eta ateratzen naiz				
Azkenerako uzten ditut atazari berari ez dagozkion kontuak, jarduera ez eteteko.				
Aldeko tratua izaten dut interesa izan eta lan gehiago egiten duten ikasleekin.				
Esandakoa betetzen dut (datak, jarduerak, irteerak, sariak...)				
Bete dezakedana soilik eskatzen dut.				
Portaera txarra dutenean, beste aldera begiratzen dut.				
Arauak betetzen ez dituzten ikasleei jendaurrean egiten diet errieta				
Gizarte- eta komunikazio-trebetasunak				
Ikasleei begiratzen diet klasea ematen dudanean				
Argi hitz egiten dut				
Nire keinuak eta intonazioa esaten ari naizenarekin bat datoz				
Ikasleei entzuten diet eta haiek ulertzen ahalegintzen naiz				

Ikasgelan sartzen naizenean ikasleak agurtzen ditut				
Ikasgelatik ateratzean ikasleei adio esaten diet				
Mezuak lehen pertsonak ematen ditut				
Ez dut deskalifikaziorik egiten				
Asko kostatzen zait zerbait "ez dakidala" onartzea.				
Gatazkei erantzuteko trebetasunak				
Neure burua kontrolatzen dut egoerak ikasgelan gaina hartzen badit				
Diziplina arazoei aurre egiten diet				
Ikasgelan arazoak badaude, beste batzuei laguntza eskatzen diet konpontzearren				
Konponbideak bilatzen ditut arazoak daudenean				
Ikasleei esaten diet zerk gogaitzen nauen				
Gatazkak saihesten ditut neu ongi sentitzeko				
Kritika eraikitzaileak egiten ditut				
Kritikak ongi hartzen ditut				
Oldarkor erantzuten dut erronka jotzen didatenean				
Ikasleekin harremanetan jartzeko trebetasunak				
Ikasleei euren izenarekin deitzen diet				
Ikasleengan interesa sortzen dut.				
Ikasleen ekarpenak baloratzen ditut				
Badakit zein diren ikasleen interesak eta zaletasunak				
Ikasle batek behar nauenean, beti harekin egoten naiz				

Ikasgelan beti umorez onez nago				
Ikasleekin bakarka hitz egiten dut, bereziki ikasgelan gutxien kolaboratzen dutenekin				
Irakaskuntzako estrategiak erabiltzea				
Gozatzen dut irakatsiz eta ikasleekin harremanetan egonez				
Saio bakoitzaren plangintza egiten dut eta proposatutakoari egokitzen natzaio				
Ikasle guztiei egiten diet arreta				
Etengabean gainbegiratzen dut ikasgela				
Ataza irekiak ematen ditut				
Ekintza bat baino gehiagoko askotariko jarduerak proposatzea: entzutea, idaztea, begiratzea, hitz egitea...				
Askotariko materialak dituzten jarduerak prestatzen ditut				
Askotariko taldekatzeak eskatzen dituzten jarduerak proposatzen ditut: bakarka, bikoteka, talde txikietan...				
Maila bat baino gehiagoko atazak prestatzen ditut				
Zalantzak argitzen ditut				
Zailtasunei aurrea hartzen diet				
Saioaren zatirik handiena azalpenak emateko erabiltzen dut				
Maiz ez dut astirik izaten prestatutako guztia emateko				
Ia saio osoa eserita edo arbelean ematen dut				

Irakasleak bizikidetzan trebatzeko materialak.

Ataza-motak nolako, hala jartzen naiz ikasgelako toki batean edo beste batean (aurrean, ikasmahaien artean, bukaeran...)				
Beti prestatzen dut klasearen hasiera egin behar den lanaren motibazio modura				
Jardueren arteko trantsizioak zaintzen ditut				
Ez dut uzten talde batek edo pertsona batek nire arreta monopolizatzen				
Klasearen bukaera zaintzen dut, eta jardueraren bukaerarako, ataza bidaltzeko eta adio egiteko denbora gordetzen dut				
Curriculumak ikasleen beharrei eta desioei egokitzen ahalegintzea				
Ikasleei eskatzen diet irakasle moduan egiten dudana lanaren gaineko feedback-a eman diezadaten				
Ikasleak kitzikatzen ditut modu independentean lan egin dezaten eta beren ikaskuntza beren kasa zuzen dezaten.				

SEIGARREN SAIOA: Araudiarekin bueltaka.	dis06a00
<p>HELBURUAK:</p> <ul style="list-style-type: none">• Taldeko kide guztien parte hartzea sustatzea.• Ikasgelako araudiaren gaineko ezagutzan sakontzea.• Arauak ezartzeko prozedurak ezagutu eta praktikan jartzea. <p>JARDUERAK</p> <ul style="list-style-type: none">• "Legerik gabeko eskola?" Testua irakurri eta gaia lantzen hasteko iruzkinak egitea.• "Ikasgelako araudia nola abiatu". Testua irakurri eta taldeetan aztertzea. Testuko prozedura ikastetxeko ikastalde zehatzei nola egokitu hausnartzea.• "Arauekiko sentiberatasuna". Arauak beharrezkoak izatearen gainean ikasleak sentsibilizatzeko jarduerak prestatzea.• "Arauak eta ondorioak". Taldeek ondorioak prestatzea, hots, oinarrizko arauak ez betetzeagatik izan daitezkeenak.	

Legerik gabeko eskola?	dis06a01
<p>Irakurri Bernard Defrance-ren <i>Disciplina en la escuela</i> liburutik ateratako zatiek osaturiko Legerik gabeko eskola? izeneko testu hau. Liburu honetan, irakasleen eta ikasleen lekukotasunez baliaturik, egileak erakusten du zergatik ager daitezkeen blokeo-egoerak edo gatazka biolentoak eta nola den posible haiek gainditzea eskolako erkidegoari aukera emanez erreferentziak bilatzeko eta bizikidetzaren antolatzearen baliozko arauak onartzeko.</p>	
<p style="text-align: center;">TESTUA</p> <p style="text-align: center;">Legerik gabeko eskola? B. Defrance-ren liburutik ateratako testuak (2005)</p> <p>Araudia, egiazki aplikatzen da?... ez da galdera inozo bat. Araudiak izan badira, ez soilik eskoletan; araudi horien xedapen guztiak ez dira sekula kontuan hartzen, inoiz aldatu edo indarrik gabe utzi ez badira ere. Arauak teorikoki indarrean egon daitezke inoiz edo noizean behin aplikatu gabe ere.</p> <p>Zenbait arau absurduak direla begien bistakoa da. Baina, ezbairik gabe, araudirik ez egotea are kaltegarriagoa da. Araua aplikatzen ez denean, idatzita egonik ere eta teorikoki indarrean, araurik ez balego bezalako emaitzak ditugu.</p> <p>"Egin ezazu nik esandakoa, ez nik egiten dudana" Absurdo hau oso kaltegarria da eta haurra zenbatenez eta gazteago, hainbatenez eta kaltegarriago. 6-7 urteak bitartean, haurra ez da gai arian-arian bereganatzeko zerbait arbitrarioaren, ohikoaren edo arrazoizkoaren arteko oinarrizko bereizketak, helduak eguneroko bizitzan inposatzen dizkion araei buruz ari garenean. Haurrendako zaila da ulertzea hezitzaileek bereziki arau absolutu modura inposatu nahi dituztenean jarrera batzuk eta jarrera horiek gizarte-arau soil direnean edo azalekoa soilik zigortzen dutenean eta, orobat, garrantzitsuena denaren aurrean begiak ixten direnean.</p> <p>Ohiturak, arauak, legeak. Ikasgelako barne-arauetan bereizi beharrekoa da zer den negoziagarria eta zer ez den, sailkapen baten arabera. Sailkapen horretan sartzen dira pertsonen arteko konbentzioak, ohiturak eta azturak, eta arau teknikoak, lege-arauak, arau moralak eta printzipio etikoak. Ez dira gauza bera beren "aferak" ahaztea edo txiklea murtzikatzea, eta ikaskide batez barre egitea edo irain egitea. Adibidez, ez da eztabaidatzen indarkeria galaraztea, litekeena baita eztabaida sortzea hor. Eta ikasle eta irakasle guztiei ezartzen zaie. Hala ere, bada hor desberdintasun bat: ikaslea ikasten ari da eta irakasleak, hezitzaile heldua baita, debeku hori behin betikoz barneratua behar du izan. Aldiz,</p>	

txiklea murtxikatzeko debekua, esaterako, egiazki eskaera moduan soilik aurkez daiteke: inori kalterik egiten ez dion ohitura bat da eta nik irakasle moduan ikasleei soilik eska diezaieket txiklerik ez murtxikatzeko, ezin baitut jasan ikasleak hausnarrean ikustea; eta hori guztia nire kontuak besterik ez dira. Heziketa onekotzat hartutako portaera-arau ohikoak gehiegitan arau absolutu modura aurkezten dira, arau horiek hausteak neurririk gabeko ondorioak ekarriko balitu bezala. Garrantzitsuena ez da "arau" horien arbitrariotasun-maila edo arau horien ohiko izaera, arau horiek azaltzea baino. Garrantzitsua da arau horiek denendako berberak izatea eta denboran zehar ez aldatzea.

Testuari buruzko jarduera ***Legerik gabeko eskola?***

Testua bakarka irakurri ondoren, ikasle bakoitzak testuan azpimarratu beharko du zein ideiarekin ados dagoen. Jarraian, 5-6 pertsonako taldeak eginen dira eta norberak azpimarratutako ideiak komentatuko. Talde bakoitzak testuan garrantzitsuentzat jotzen duen ideia adostu beharko du. Horren ondotik, talde bakoitzak azpimarratutako ideia azalduko du. Taldeen ekarpenen ondotik, denbora-tarte bat utziko da nahi duenak testuaren gaineko zerbait esan dezan.

Ikasgelako araudia abiatzeko prozesua	dis06a02
<p>Irakurri testua bakarka. Jarraian, 4-5 pertsonako taldeak egin. Komenigarria da taldekideek maila berbera edo antzekoa izatea. Taldeak egin ondoren, 20-30 minutu utziko dira talde bakoitzak testua azter dezan, alderdirik garrantzitsuenak atera ditzan eta prozesu hau bere taldeei nola egokitzen ahal zaien erabaki dezan. Horren ondotik, talde bakoitzaren ondorioak bateratuko dira.</p>	
<p style="text-align: center;">TESTUA Ikasgelako araudia</p> <p>Garrantzitsua da oinarrizko portaera-arauak argi izatea. Egokiena da ikasleek ulertzeko moduan azaltzea eta ahal denean ikasgelako arauak taldeak prestatu eta onartuak izatea. Ona da ikasleak parte hartzea prozesuan, erabakiak hartzeko unean eta arauen kontrolean eta jarraipenean eta horrek guztiak aldeko ondorioak ditu ikastetxearen eta ikasgelaren gainean duen jarreran. Arauekin koherentea izan den zigor-eta sari-sistema bat ezarri behar da.</p> <p>Araudia aldi-aldi landu behar da eta ikasgelan agerian egon behar du. Era berean, garrantzitsua da arauak eta haien erabilgarritasuna eta betetze-maila gainbegiratzea.</p> <p style="text-align: center;">IKASGELAN ERABILI BEHARREKO PROZEDURA:</p> <p>1) Lehen fasea: sentsibilizatzea eta jabetzea. Ikasle guztiek jakin behar dute badirela arauak eta arau horiek beharrezkoak direla askotariko testuinguru- eta bizitza kolektiboa arautzeko eta hurrengo prozesuan murgil daitezkeen motibatuzko.</p> <p><u>Egin daitezkeen jarduerak:</u></p> <ul style="list-style-type: none">○ "Hauek gutarrak dira": banaka eta talde txikian egin beharreko hausnarketa gai hauen gainean: norbera zein taldetakoa den, talde horietan zein esperientzia bizi izan den, talde horietako arauak nolakoak diren.○ "Arauek antolakundeetan": bakarka, bikotean eta/edo talde txikian egin beharreko ikerlana, zenbait antolakundeetan (erietxean, fabriketan, kultura elkarteetan...) indarrean diren arauen gainean.○ "Araurik gabeko jokoak": zenbait jolasetan (partxisean, saskibaloian, gertatutakoaren hausnarketa...) jostatzea arauak kontuan hartu gabe.○ "Eulien jauna" filma aztertzea. <p>2) Bigarren fasea: arauak ekoiztea. 3 aldagai har daitezke kontuan:</p> <ul style="list-style-type: none">- Ikasleei emanen zaien erabakitzearen ahalmen-maila: irakasleak zehaztuko ditu zein diren araurik garrantzitsuenak eta ikasleek arau horiek aldatzeko proposamena egin dezakete edo ikasleek berek	

idatziko dute araudia. Arauak prestatzerakoan ondoko irizpide hauek hartu behar dira kontuan: arauak argiak eta zehatzak izanen dira, modu positiboan idatziak, errealistak eta betetzeko errazak, justuak eta ulergarriak. Aldi berean, ez dira gehiegi izanen eta ez dira ikastetxeko arauen kontrakoak izanen.

- Zigorrak edo zuzenketak ezartzea edo ez. Pérezek, Trianesez edo Fajardok nahiago dute arauak ez-betetzeari lotutako balizko ondorioak zehaztea. Zigorrak jarriko dira zerbait konpontzeko edo berreskuratzeko eta ez soilik zerbait zehatzeko. Kontuan izan beharreko irizpiderik garrantzitsuenak ondoko hauek dira: zigorrak errealistak eta egingarriak izanen dira, hutsegitearen larritasunarekiko proportzionalak, zuzenketan eraginkorrak, eta hutsegitearekin erlazio logikoa izanen dute eta ez dira pertsonaren eskubideen kontrakoak izanen eta, orobat, egindako kaltearen mailaren arabera izanen dira.
- Arauak ezartzeko aukera, irakasleak taldearekin duen interakzioa arautuz. Fajardok (1996) deskribatu duen ekintza hau oinarri ona da negoziatorako, oso ekitatiboa delako, ikasleen eskubideak onartzen dituelako eta irakasleak ageriko konpromisoa duelako ikasgelako giroan. Batzuetan ikasleei zaila egiten zaie bizikidetzako eta ikaskuntzako giroa hobetzeko irakasleek izan beharreko portaerak zerrendatzea eta, hori hala izanik, beharbada erabilgarriagoa izan daiteke irakasleak berak nola jokatu duen proposatzea eta gero ikasleek arau horiek aldatzeko proposamenak egitea.

Egin daitezkeen jarduerak:

- o "Ikasgelako lanean tartekatzen diren portaerak": euren ikasgelan gertatzen diren portaera desegokien gainean ikasleek hausnarketarako bete beharreko galdera-sorta.
- o "Arauak hautatzeko jarduera"
- o "Ondorioak hautatzeko jarduera"

3) Hirugarren fasea: negoziazioa eta adostasuna. Helburua da denendako ona izanen den akordioa lortzea. Onena litzateke adostasunez lortutako hitzarmena egitea. Fase honetan ezinbestekoa da irakasleen jarrera: irakasleak entzuteko, hitz egiteko, negoziatzeko eta bitartekari aritzeko dohaiak baliatuko ditu. Positiboa da akordio idatzi eta sinatua lortzea eta hartan zehaztea zenbat denborarako den eta hura errebisatzeko eta aldatzeko tresnak zein diren.

Egin daitezkeen jarduerak:

- o "Aurik baliozkoenen gaineko adostasuna"
- o "Konpromiso pertsonala idaztea"

4) Laugarren fasea: ezarpena eta jarraipena.

- Onetsitako araudia hedatzea: ageriko tokian erakustea, kopiak banatzea.
- Ezartzea, alde aurretik ikasi eta egokitu ondoren: lehen egunak kritikoak dira eta arreta handiagoa behar da. Estrategia on bat da irakaslea izatea ondorio bat bete behar duen lehen arau-hauslea.

Ondorioak berehala ezarri behar dira, "sermoirik" eman gabe, liskarrik sortu gabe eta bete ez den araua soilik aipatuz.

- Errebisatzea eta doitzea. Komenigarria da bizpahiruko asteko epean lehen aldiz aztertzea. Ikasle guztien iritzia bil daitezke isilpeko elkarrizketa edo galdera-sorten bidez. Desegokitzapenek ikasle bat edo batzuk bereziki ukitzen badituzte, egokia izan daiteke akordioa banaka negoziatzea. Ez baztertu laguntza psikopedagogikoa.
- Irakasleen koordinazioa: halako programa baten eraginkortasuna asko hobetuko litzateke baldin eta irakasleek esku-hartze irizpideak bateratuko balituzte, arauak aztertuko balira, arauen interpretazioa partekatuko balitz eta irizpideak bateratuko balira.

Agiriak:

- o "Erregistroak"
- o "Ahalegina onartzeko fitxa"

Edozein unetan prozesua erabakitako bidetik aldentzen bada, badago oharren bat egiterik eta epe bat ezartzerik ikasleak euren ardurak betetzeko gai direla frogatzearren.

Alarnes BHItik egokitua: *"Ikasgelako arauak. Arauak prestatzeko eta erabiltzeko gida"*
eta L. A. Barriocanal: *"Adostutako arauak, onartutako arauak"*.

Arauekin sentsibilizatzeko jarduerak	dis06a03
<p>Aurreko jardueran egin diren talde berak eginen dira. Talde bakoitzak arauekin sentsibilizatzeko 2-3 jarduera prestatuko ditu. Jarduera horiek eskola hartzen duten ikastaldeendako prestatutakoak izanen dira. (Jarraian, adibide modura bi jarduera eskainiko dira). Labur garatutako jarduerak bateratuko dira.</p>	
Jarduera ereduak	
<p>1. jarduera: ikasleendako banakako galdera-sorta.</p> <p>Erantzun bakarka galdera hauei:</p> <ol style="list-style-type: none">1. Bada araurik zure etxean?2. Idatzirik daude? Edo, aitzitik, idatzi egon beharrik gabe, denek dakizue zer egin dezakezuen eta zer ez?3. Ekarri gogora bazkaria. Zure etxean janariaren inguruko portaera batzuk daude. Adibideak jarri, batetik, portaera egokienak, eta bestetik, uzten ez direnenak. <i>Adibidea: Mahaian eseri aurretik eskuak garbitzen ditugu. Ezin da zopa plater bat eserita jan egongelako sofan.</i>4. Taldeko kirolak egiten duzu? Bada araurik kirol horretan? Ezagutzen dituzu? Idatzi horietako batzuk.5. Zure ustez, zertarako daude arauak? Eman 2 arrazoi, gutxienik. <p>Alderatu zure erantzunak zure ikaskideak emandakoekin. Hitz egin ados zaudeten kontuen gainean eta 5. galderari buruzko akordioak lortzen saiatu.</p>	

2. jarduera: testu baten gaineko hausnarketa

Irakurri taldean ondoko kontakizun hau eta erantzun galderei:

NIRE "TXOKO"KO ARAUAK ⁽¹⁾

"Gure herrian neska-mutilak "txokoetan" elkartzen gara. Alokaturako etxabeak dira, biltzeko erabiltzen ditugunak. Txokoan solasean aritzen gara, filmak ikusten ditugu, kartetan jolasten gara, planak egiten ditugu, noizean behin askaldu edo afaltzen dugu, festak prestatzen ditugu...

Gure "txokoa"ren izena "Aldartetsuak" da. Pilotalekutik hurbil dagoen etxabe batean dago. Hantxe dauzkagu altzari batzuk, saskibaloiko saski bat, sukaldetxo bat, hozkailu bat, telebista bat, musika-kate bat eta play bat.

Lagun-talde handia gara, 16ren bat-edo. Berehala konturatu ginen arau argiak jarri behar genituela, gure lagun Luisek esaten duen bezala hura guztia "nahaste-borraste" handia izanen zela bestela.

Luze eztabaidatu genuen akordioetara iritsi arte. Azkenean, bozketa egin eta "txokoko hamar aginduak" idatzi genituen.

Hona hemen agindu horiek:

NIRE "TXOKO"KO ARAUAK

1. Argia itzali irten aurretik.
2. Itxi giltzaz irteten azkena bazara.
3. Jarri hilabete-saria hilaren 5a baino lehenago.
4. Utzi garbi komuna erabiltzen duzunean.
5. Apuntatu koadernoan kontsumizioak.
6. Bete garbiketa eta erosketetarako txandak.
7. Ez ekarri lagun-taldekoak ez diren kanpoko bi baino gehiago, salbu eta afari edo festetan.
8. Ez inposatu gainerakoei zure gustuko musika edo filmak. Negoziatu.
9. Konpondu gatazkak hitz eginez. Ez borrokatu.
10. Errespetatu denak, nahiz eta egiten dutena gustuko ez izan."

1. galdera.

Arauk betetzeko dira. Norbaitek betetzen ez dituzenean, denon ongizateak kalteak izaten ditu. Lagun-taldean batzuk zapuzturik gaude batzuen portaerarekin. Hona hemen zer egiten ari ziren. Esanen diguzue kasu bakoitzean arauen bat hausten ari diren eta haietako zein den:

- Azken bi hilabeteetan Lolik dirua hilaren 15aren ondoren jarri du behin baino gehiagotan erreklamatu ondoren.
- Josetxo beti etorri ohi da bere bi lehengusu "aprobetxategi" horiekin.
- Tomasek "play"a hartu eta ez du arratsalde osoan askatzen. Bera bakarrik jostatzen da, bostek film bat ikusi nahi dugula esan arren.
- "Garbiketa" egokitzen zaion guztietan, Inesek aitzakiren bat ematen du ez etortzeko.
- Karlos eta Enrike "borrokazale" samarrak dira eta birritan elkar joka hasi dira. Mikelek eta Rikik bereizi behar izan

dituzte.

- Martak eta Anek esaten dute ez duela zentzurik edandakoa apuntatzeak eta ia beti apuntatzeari uzten diote.
- Imma oso despistatua da eta birritan alde egin du atea zabalik utzita.

Zer arau ez dituzte bete?

- Lolik
- Josetxok
- Tomasek
- Inesek
- Karlosek eta Enrikek
- Mikelek eta Rikik
- Martak eta Anek
- Immak

2. galdera.

Zer egin dezakegu arazo horiek konpontzeko? Pentsatu, idatzi eta komentatu zure ikaskideekin.

(1) Jarduera: W.AA. (2008). *Leer, comprender y actuar. Propuestas para el uso funcional del lenguaje escrito*. Iruña: Nafarroako Gobernua. Hezkuntza Departamentua.

Arauk eta ondorioak		dis06a04
<p>Talde bakoitzak 5-6 arau prestatuko ditu eta, ikasleak gogoan, arau horiek ez betetzeagatik izan daitezkeen ondorioak idatziko ditu. (Jarraian ematen dira zenbait adibide). Arauk bateratu eta talde bakoitzak aukeratu dituenak justifikatuko ditu.</p>		
Adibideak		
Araua	Ez-betetzeagatiko ondorioak	
Klaseak puntualtasunez hasiko dira.	<ul style="list-style-type: none"> - Sartzeko baimena eskatu eta azaldu atzerapenaren zergatia. - Atzeratutakoa jolasaldian berreskuratu. - Zutik gelditu eseri aurretik. 	
Hitz egin behar dugunean, hitz egiteko txanda errespetatuko dugu	<ul style="list-style-type: none"> - Taldeari barkamena eskatu hizketaldia eteteagatik. - 10' parte hartu gabe. - Klase osoa parte hartu gabe. 	
Pertsonak euren izenez deituko ditugu, ezizenik eta irainik erabili gabe... eta ahozko indarkeria oro baztertuz.	<ul style="list-style-type: none"> - Iraindutakoari desenkusak eskatu. - Iraindutakoaren aldeko ekintza egin. - Pertsonaren eskubideen aldeko lan idatzia. 	
Ikasgelako material guztia zaindu behar dugu eta kontserbazio-egoera onean mantendu.	<ul style="list-style-type: none"> - Klasea bukatzean, zikindutakoa garbitu. - Hondatutako materiala berriro ekarri. - Ikasgelan hondatuta dauden beste gauza batzuk konpondu. 	
Ikasleen arteko gatazkak hitz eginez konponduko dira. Debekaturik daude borrokak.	<ul style="list-style-type: none"> - Aldeen arteko elkarrizketa. - Batak besteari emandako desenkusak. - Ikasleen eta irakaslearen arteko bilera. - Taldeak gatazka aztertzea eta ikasgelak inposatutako zuzenketa, 	

	larria bada.
Itxaron bildu baino lehenago irakasleak klasea bukatutzat eman arte.	
Irakasleak ataza bat egiteko azalpenak edo jarraibideak ematen dituenean, zain gelditu behar da. Ahal dela hitzik ez egin edo jarduera gogaikarririk ez egin.	
Atazak eta lanak ezarritako epean bukatu behar dira.	
Zerbait maileguan hartu aurretik, haren jabeari eskatu eta hartu horretarako baimenik baduzu.	
Egokitua: Fernández, I. (koord.) (2002) <i>Guía para la convivencia en el aula</i> . Bartzelona: Praxis argit.	

ZAZPIGARREN SAIOA: Portaera disruptiboen gaineko esku-hartzearen diseinua (I).	dis07a00
<p>HELBURUAK:</p> <ul style="list-style-type: none">• Taldekide guztien parte-hartzea eta ezagutza handitzea.• Azterketa eta adostasunerako prozeduretan sakontzea.• Portaera disruptiboen gaineko esku-hartze estrategiak ezagutzea. <p>JARDUERAK</p> <ul style="list-style-type: none">• "Esaldiak baino zerbait gehiago...": parte-hartzaileak elkar ezagutzeko jarduera, eskolaren eta ikaskuntzaren gaineko elkarrizketa sustatuz.• "Disrupzioaren aurrean esku hartzea". Power point erako diapositiben aurkezpena, ikasgelako portaera disruptiboen aurrean esku hartzeko prozedurei buruz.• "Kasu bat talde koadrikulatuen bitartez aztertzea". Kasuak aztertuko dira talde koadrikulatuen teknika erabiliz. Teknika horrek bermatzen du pertsona guztiek parte hartuko dutela eta adostasunerako prozedura desberdinak esploratzen ditu.• "Jokabideak ikasgelan behatzea". Sarrerako jarduera irakasleek ikasgeletan jokabide erregistroa has dezaten.	

Esaldiak baino zerbait gehiago...

dis07a01

HELBURUA: pertsona guztien parte-hartzea sustatzea. Irakaskuntzaren eta ikaskuntzaren kontzeptuetan sakontzea eta taldekideek horren gainean pentsatzen dutenaren gaineko ezagutza handitzea.

PROZEDURA: taldekide guztiek bikoteak egin ditzatela eskatuko da, eta bikote bakoitzari pertsona ezagun baten esaldi edo pentsamendu bat emanen zaio. 10 minutuz horren gaineko iruzkin bat egin beharko dute eta esaldian agerian dagoen irakaskuntzaren, ikaskuntzaren, eskolaren... kontzeptua aztertu beharko dute. Denbora hori iraganik, bikote bakoitzak talde osoaren aurrean irakurriko ditu esaldia eta esaldi horrek sortu dien iruzkina.

Esaldiak ondoko hauek bezalakoak izan daitezke:

- "Badakigu irakasteak ez dakarrela berez ikastea" (McBeath)
- "Nahiak norberak barrutik ateratakoa izan behar du eta ez entrenatzaileen edo irakasleen bultzadaren emaitza" (G. Graham)
- "Helduarorako prestatzeko modurik txarrena da azterketetan beti nota ona ateratzea" (A. McKie)
- Zuek uste duzue eskolara joan izan banintz noizbait zerbait izanen nintzatekeela? (T. Edison)
- "Badakigu gazteak adin desberdinetan garatzen direla. Zergatik tematzen gara denek erritmo berean garatu behar duten kontu horrekin? (C. Handy)
- "Ikastea esperientzia lortzea da. Gainerako guztia informazioa besterik ez da" (A. Einstein)
- "Behin eta berriz egiten duguna gara. Bikaintasuna, beraz, ez da egintza bat, ohitura bat baizik". (Aristoteles)
- "Munduko buruzagi gehienendako, eskolako esperientzia ez zen eroso izan, ez bazen zorigaitzokoa izan" (H. Gardner)
- "Inoiz ez zuten eskolan nire sormena kontuan hartu. Desberdina ez izateko eskatzen zidaten. Baina hildako arrainak soilik segitzen du uraren norabidea" (J. Dyson)
- "Irakaslearen portaera da ikaslearena zehazten duen banakako faktorerik garrantzitsuena" (The Elton Report, 1989)
- "Errazago egiten da bihotzetik adimenerako bidea eta ez adimenetik bihotzerakoa" (Santa Katalina)
- "Irakasleak betierekotasunean eragiten du eta inoiz ez du jakinen bere eragina norainokoa izanen den" (H. B. Adams)

- "Emozioak arreta bideratzen du eta arretak ikaskuntza" (R. Sylwester)
- "Esadazu eta ahaztuko dut, irakatsiezadazu eta gogoan hartuko dut, tartean sar nazazu eta ikasiko dut" (B. Franklin)
- "Ezinezkoa zela ez zekitenez gero, egin zuten" (Ezezaguna)
- "Inoiz ez da itxaropenak ematen direnean bezainbeste ematen" (J. A. France)
- "Batzuetan zailagoa da akats bakar bat kentzea ezen ez ehun bertute eskuratzea" (J. de la Bruyère)
- "Emitza desberdinak bilatzen badituzu, ez ezazu beti gauza bera egin" (A. Einstein)
- "Gizakiari ezin diozu ezer ere irakatsi; lagun iezaiozu berez aurkitzen" (Galileo Galilei)
- "Ez badakizu nora iritsi nahi duzun, haize bakar bat ere ez duzu aldeko izanen". (Seneka)

Hemendik atera dira: <http://www.inteligenciaemocional-portal.org/CITAS/CITAS.pdf> eta Gilbert, I. (2005) *Ikasgelan ikasteko arrazoiak. Eskolako motibazioaren zazpi gakoak*.

Kasu bat talde koadrikulatuen bitartez aztertzea	dis07a03
<p>HELBURUA: bateratzea mailaka. Denen parte-hartzea bermatzea. Adostasunerako prozedura desberdinak aztertzea. Jokabide disruptiboen azterketan sakontzea eta jokabide horien aurrean esku hartzea.</p> <p>PROZEDURA: taldekideak azpitaldeetan banatuko dira, azpitaldeen kopurua eta azpitalde bakoitzeko kideena berberak izateko moduan: 3 kideko 3 azpitalde, 4 4ko, 5 5eko, 6 6ko...</p> <p>Azpitalde guztiek kasu bat landuko dute, modu paraleloan eta aldi berean. Denbora hori parte-hartzaile kopuruaren arabera kalkulatu da: 5 minutu kide bakoitzeko (3 kide: 15 minutu; 4 kide: 20...).</p> <p>Denbora hori iraganik, azpitaldeak desegin eta berriz eratuko dira talde bakoitzean aurreko azpitalde horietako kide bat sartuz. Aurrekoan utzitako denbora bera utziko da orain ere. Aurreko taldeko lanaren gainean kide bakoitzak esan beharrekoa entzuten da eta denek ekarritako datuak aztertu eta ondorioak aterako dira.</p> <p>Azkenean, talde handia bilduko da. Azpitalde bakoitzak bere ondorioak azaltzeko 5 minutu izanen ditu.</p> <p>Langaia benetako kasu bat izan daiteke, ikastetxeko irakasle batek ekarria edo ondoko adibideetako edozein:</p> <p style="text-align: center;">Eztabaidarako kasuen ereduak</p> <p><u>1. kasua.</u></p> <p>Ana matematikako irakaslea da. Duela 15 egun etorri zen institutura, ordezkapen bat egitera. Ongi egokitzen ari da eta ez du inolako arazorik, ez bada 2.D ikasgelan duena. Ikasgela horretan bada neska bat, Jara izenekoa, ikasgelako lana etengabe oztopatzen ari dena. Xelebrearena egiten ari da: ohar desegokiak egiten ditu, gehiegizko doinuarekin hitz egiten du, keinuak egiten ditu... Horrek bere ikaskideengan barreak sortzen ditu eta horrek klaseko erritmoa hausten du. Anak etengabe esaten dio zuzen esertzeko, hitz egin nahi duenean eskua altxatzeko, txiklerik ez jateko, koaderno ateratzeko... Eta hala saio osoan. Errutina bihurtu da eta Anak ez daki zer egin.</p> <p><u>2. kasua.</u></p> <p>Ander mutiko ipurterre bat da eta klasean asko gogaitzen du. Irakaslea azalpenak ematen ari denean, ematen du ez duela kasurik egiten. Hala ere, edukiak ongi bereganatzen ditu eta ia esandako guztia jasotzen du. Irakasleak ikasgelan egiteko lana ematen duenean, ikaskideak zirikatzen ditu eta ez du inoiz ere agindutako</p>	

lanik egiten. Etxeko lanetan eta kontroletan ere ez duenez ahalegin handirik egiten, ez ditu Hizkuntza eta Ingurunearen Ezaguera gainditu. Irakasleak etengabe egiten dio errieta, lan egin dezan. Baina berari berdin zaio eta lanik egin gabe eta bere ikaskideak gogaitzen segitzen du.

3. kasua.

Alejandrori ez dio axola klaseak. Irakasgai gehienetako klaseetara ez du materialik eramaten: batean, ez duela libururik ekarri; bestean, koaderno... Aspertzen da eta denbora ematen du klasea etenez, gogaituz, gainerakoez barre eginez edo "graziak" eginez.

Maite Ingeleseko irakaslea da eta ez daki zer egin Alejandrorekin. Gaur goizean urrunegi joan da. Gainerako ikaskideek idatzitako jarduerak egiten dituzten bitartean, Alejandrok ogitartekoa atera du mahai gainera. Maite saiatu da ezinikusiaarena egiten, jarrera aldatzen ote duen ikusteko. Hala ere, jarduerak ahots ozenez zuzentzen hasi direnean, Alejandrok bolaluma huts bat hartu eta paper-bolatxoak botatzen hasi da.

Kasuak aztertzeko gida

1. Zer egin daiteke egoera epe laburrean konpontzeko?
2. Zer egin beharko litzateke epe luzeago batean esku hartzeko?
3. Zer datu atera beharko lirateke?
4. Norekin hitz egin beharko litzateke?
5. Zer plan ezarri beharko litzateke?
6. Nor tartekatu beharko lirateke?
7. Egunero ezartzen errazak diren balizko estrategiak.

R. Hostie-tik (1994) egokitutako prozedura

Jokabideak ikasgelan behatzea	dis07a04
--------------------------------------	-----------------

6-7 jokabide disruptibo biltzen dituen erregistroa emanen da. Jokabide horiek taldeko irakasleek euren ikasgeletan irakaskuntzaren eta ikaskuntzaren prozesuan asaldurarik handiena sortu dutenak izanen dira, betiere irakasleek berek lehen saioan egindako galdera-sortatik ateratakoak.
 Esanen da astebetetz irakasle bakoitzak taula batean anotatu beharko duela euren ikasgeletan jokabide horiek zer maiztasunekin gertatzen diren.
 Lortutako emaitzak hurrengo saioan landuko dira.

Adibidea

JOKABIDE DISRUPTIBOEN ERREGISTROA

EGUNA:

IRAKASLEA:.....

Jokabideak	1. saioa	2. saioa	3. saioa	4. saioa	5. saioa	6. saioa
Azalpenak ematen ari naizenean, klasea etetea gaiari arrotz zaizkion alderdiekin.						
Azalpenak ematen ditudanean xuxurlaka edo ahots apalez hitz egitea.						
Komunera maiz joan nahi dela eskatzea.						
Objektu txikiak erabili edo haiekin jolasean ibiltzea.						
"Pailazoarena" egitea.						
Objektuekin edo gorputz-atalekin (eztultxoak, txistuak...) hotsak egitea.						

Markatu saio bakoitzean zer jokabide gertatzen den eta zein den haien maiztasuna. Saioaren laukian idatzi zein taldetan dagoen (Adibidez: 1. saioa: 4.B 2. 3.A...). Beste jokabide garrantzitsu batzuk gertatzen badira, jokabideen zutabeko lauki zurietan anotatu.

ZORTZIGARREN SAIOA: Portaera disruptiboen gaineko esku-hartzearen diseinua (II).	dis08a00
<p>HELBURUAK:</p> <ul style="list-style-type: none">• Taldean elkarlanean lan egiteko estrategiak garatzea.• Esku-hartzerako prozeduretan eta estrategietan sakontzea.• Hartutako ezagutzak ikastetxearen benetako egoerari aplikatzea. <p>JARDUERAK:</p> <ul style="list-style-type: none">• "Jokabiderik ohikoenak". Asteazken zehar behatutako jokabideak bateratzea, maiztasunen bilketa egitea eta 3-4 jokabiderik ohikoenak hautatzea. Maiztasun antzemandako jokabidea aukeratu eta hura lantzea.• "Esku-hartze plana". Ikasgeletan maiztasun behatutako jokabide disruptiboaren gainean esku hartzeko plana diseinatzea.• "Egindakoaz gogoratzen dudana": egindako jarduerak ebaluatu eta balioesteko jarduerak.	

Jokabiderik ohikoenak											dis08a01								
Astean zehar behatutako jokabideak bateratzea. Erregistroa egin duten irakasleek jokabide bakoitzerako maiztasunak ekarriko dituzte. Maiztasunak batu eta zenbateko osoak erregistratuko dira.																			
<u>JOKABIDE DISRUPTIBOAK</u> <u>Kontaketa-orria</u>																			
Jokabideak	Erregistroa egin duten irakasleak																		
	1	2	3	4	5	6	7	8	9										G U Z T I R A
Azalpenak ematen ari naizenean, klasea etetea gaiari arrotz zaizkion alderdiekin.																			
Azalpenak ematen ditudanean xuxurlaka edo ahots apalez hitz egitea.																			
Komunera maiz joan nahi dela eskatzea.																			
Objektu txikiak erabili edo haiekin jolasean ibiltzea.																			
"Pailazoarena" egitea.																			
Objektuekin edo gorputz-atalekin (eztultxoak, txistuak...) hotsak egitea.																			
GUZTIRA																			

Irakasleak bizikidetzan trebatzeko materialak.

--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

Markatu lauki bakoitzean astean zehar irakasleak jokabide hori zenbat aldiz erregistratu duen. (Adibidez: 1. irakaslea: klaseak etetea: 15; xuxurlaka hitz egitea: 9; komunera joateko eskatu: 4; jolasean ibiltzea: 12; "pailazoarena" egitea: 8; hotsak egitea: 6;). Zenbateko osoetan erregistratzen dira jokabideen zenbateko osoa eta irakasle bakoitzak erregistratutako jokabideen zenbateko osoa.

ESKU-HARTZE PLANA		dis08a02
<p>Bilketa osoa egin ondoren, jokabideak maiztasunaren arabera ordenatuko dira, handienetik txikienera.</p> <p>Aztertuko da zein diren jokabiderik ohikoenak, gainerakoekin alderaturik zein diren alde handiz gehien gertatzen diren 2-3 jokabideak edo antzeko maiztasunak dituzten 5-6 jokabideak.</p> <p>Nolanahi ere, laneko BAT bakarra aukeratuko da. Helburua maizenik gertaturiko jokabide hori desagerraraztea da.</p>		
Desagerraraziko den jokabidea (Idatzi maizenik gertatzen delako aukeratu den jokabidea, denon artean desagerrarazi behar den hori)		
Landuko den jokabidea (Positiboan formulatzea lortu nahi den helburua. Adibidea: <i>hitz egiteko txanda eskatzea eskua altxatuz</i> . Hamabost egunez irakasle guztiek arau moduan erabiliko dute)		
Lortzeko estrategiak		
Lortu nahi den jokabidea nola berrindartu	Desagerrarazi ahi den jokabidea nola ezabatu	
Nola transmitituko zaien familiei (Hala egitea beharrezkoa bada)		
Prozeduraren eraginkortasuna nola eta noiz ebaluatuko den		
Egokitua: Vaello, J. (2007) "Nola eman klasea nahi ez dutenei"		

Egindakoaz gogoratzen dudana	dis08a03
<p>HELBURUA: Egindako jarduerak bildu eta haien erabilgarritasuna balioestea.</p> <p>PROZEDURA: parte-hartzaile bakoitzari bi zutabetan banatutako orria emanen zaie. Lehen zutabearen ondoko hau idatziko da: "egindakoaz gogoratzen dudana". Eta bigarrean: "zertarako balioko didan". Orria denek bakarka bete beharko dute. Gogoraziko zaie zer landu den taldean saio guztietan. Modu askean bateratu eta komentarioak eginen dira.</p> <p>Egokitua: Pinto, A. eta beste batzuk (2010)</p>	